

ASTIGARRAGA 2017

36. aldizkaria, 2017ko uztailaren 7a



BASERRI BIZIA

AURKIBIDEA

HISTORIA



En Ergobia también hubo un astillero	10
Astigarragako Dantza Taldeak (1)	30
Ubegi baserriko dolare ardatza	44
Nire bizitzako gauzak txikiak	46

NATURA



Elena Etxeberria, Taula baserria	4
Hegaztien eraztuntzea	50

HERRIKOIAK




Arantxa Tapiarekin hizketan	14
Julene eta bere familia	20
Nekane Arzallus	32
Adineko herritarrekin kontu kontari	42
Herri bizitzaz	48

ELKARTEAK



Astigartarron esku ere badago	3
Madeiras contra la Violencia Sexista	16
Herriarteko Txapelketako finalista	18
Rodolfozen azken kukurrukua	38
Txirindularitza Astigarragan	40

KULTURA



Kultur etxe berriaz hausnartzen	8
Udal Liburutegia eta Josune, liburuzaina	22
JAIK 2017	25
Kaixo Marilyn	29
Ez etsi	34
Jaiak eta jaialdiak	36



Argitaratzailea: **ASTIGAR ELKARTEA**

Aldizkariaren koordinatze eta erredakzio lantaldea

ANTTON Arka, KIZKITZA Galartza, ROXARITO Zabalegi eta MIEL JOXE Astarbe

Kolaboratzaileak

Isabel Almandoz, Ramon Santxez, Lourdes Odriozola, Andoni Arzallus, Leire Oreja, Urkiri Salaberria, Gaizka Irigoien, Arantxa Arzamendi, Urtzi Leonet, Garbiñe San Miguel, Xabier Urdangarin, Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe

Maketazio lanak:

Antton Arka

Babesle eta laguntzaileak

KUTXABANK eta ASTIGARRAGAKO UDALA

Lege-gordailua: SS-0058/04

Inprimaketa: Antza komunikazio grafikoa

Azaleko argazkia: TAULA baserria, Elena Etxeberria

ASTIGARTARRON ESKU ERE BADAGO

Martxoak 19. Galdeketa Astigarragan. Aurreko egunetan eta egunean bertan ilusioa, kezka... Ondo joan ziren gauzak eta, kostata bada ere, eta hernaniarren laguntzari esker (nori berea, zuzenbidea), herri galdeketa egin genuen. Galdera: Nahi al duzu Euskal Herria errepublika burujabea eta indepentea izatea?

Aurretik lan ugari, galdeketa prestatu, galderaz gogoeta egin, prozedurak finkatu... Azken hamabost egunetan zer esanik ez: komunikazio lanak, esku-orriak, azpiegitura...

Jende askori eskertu behar zaio galdeketa egin izana. Hori da, hain zuzen ere, azpimarratu nahi duguna, emaitzatik haratago, auzolanean egindako ahalegina izan dela. 50 lagun inguru aritu ginen aurreko asteetan nahiz egunean bertan lanean. Astigartarren erantzuna ere azpimarratu nahi dugu: 953 pertsona hurbildu ziren botoa ematera (hautesleen %19,99). Ez dira asko Astigarragan hainbeste pertsona mugiarazi duten ekimenak.

Lehen pausoa izan da hau eta balio izan du lanean hasteko, auzolanean. Etorriko dira beste pauso batzuk, ibilian-ibilian erabakitzeko. Herriz herri, auzoz auzo, jende zorionsua herri libre batean...

Gure esku dago, astigartarron esku.

Baga GILTZA
ASTIGARRAGA - HERRIAN 2017

**HERRI GALDEKETA
CONSULTA POPULAR**

**GURE
ESKU
DAGO**

**M19
ASTIGARRAGA**

Zorionak!
parte-hartu dugun herritar guztioi.
Enhorabuena a tod@s l@s ciudadan@s
que hemos participado.

953
lagunek eman dugu botoa, oztopo guztiak gaindituz.
Votos obtenidos, tras superar todas las adversidades.

916 BAI/SI · 26 EZ/NO · 8 TXURI/BLANCO · 3 BALIOGABEA/NULO

Astigarragako Gure Esku Dago

ELENA ETXEBERRIA, TAULA BASERRIA

*Taula baserriko
Elena Etxeberriari
egin diogu aurtengo
elkarrizketa,
bere bizitzaren
historia, bere
bizimoduak eta
bilakaera astigartarroi
ezagutzera emateko asmoz.*



Igande batean dugu hitzordua eta Taula baserrira iristen naizenean, zain daukat Elena baratza ondoan. Gogotsu dago bere baserriko historia kontatzeko. Beraz, berehala hasi gara hizketan baratzari buelta ematen diogun bitartean. Apirila bukaeran gaude eta produkzio gehiena negutegietan dago (azelgak, letxugak, borraja, oraindik txiki dauden tomate landareak...). Benetan deigarriak dira berauek dauzkaten kolore eta itxura ederrak. Kanpoko lursailetan udaberriko barazkiak daude, hala nola, ilarrak, babak (bi hauen tartean letxuga txikiak), tipulinak, udaberriko azak... Baina batez ere lur asko ikusten da hutsik, neguko atsedenen ondoren oraindik ez baitago ezer landaturik. Aurten negua nahiko lehorra izan delako konposta jadanik nahastuta dago lurrarekin. Lursailetan konpostaren zati beltzak ikus daitezke han-hemenka.



Taula baserria eta beheko baratza

-Kontaiguzu zein den Elena Etxeberria eta nolako den Taula baserria

Astigarragako emakume eta baserritarra naiz, Taula baserriaren arduradun 2012 urteaz geroztik. Baserria nire aitarena zen. Betidanik baserritik bizi izan den familia izan gara. Lehen baratza eta abereak izaten genituen (behiak eta txekorrak), barazki eta esne produktiotik ateratzen genuen bizimodua. 70 eta 80 hamarkada arte baserri gehienak mistoak izaten ziren, hau da, bai baratza eta bai abereetatik bizi behar izaten zuten.

1989. urtean nire ama hil, eta aitarekin hasi nintzen elkarlanean. Aitak era konbentzionalean lantzen zuen lurra, produktu kimikoak erabiliz. Ni ohartuz joan nintzen lurrak zituen arazoak gero eta gehiago zirela, eta gure inguruan geroz eta pertsona gehiago gaixotzen zela.

1994. urtean nire bizitzan tarte bat hartu nuen bidaia luze bat egiteko, Kolonbiara, hain zuzen. Bertan eman nituen nekazaritza ekologikoan lehen urratsak, unibertsitatean ikasiaz eta finka ekologiko batean lanean arituz. Handik bueltan Iruñean Agustin Beroizen baratza ezagutu nuen, nire maisu bihurtu zelarik.

2006. urtean Donostiako 2. saihebidetako bete-bete harrapatu zizkigun baratzako lursail hobereak. Nahitaezko desjabetze honen ondoren baserriaren egitura erabat

**“Baserrian burutzen
dudan nekazaritza
kontzeptua erabat aldatzea
pentsatzen dut”**

kaltetuta geratu zen. Urte honetan bertan aitak baratzaren ardura nire eskuetan utzi zuen eta orduz geroztik, geratu zitzaizkigun lur zatietan kimikarik gabeko nekazaritza lantzen dugu.

2013. urtetik aurrera, Agustin Beroiz Taulara etorri zen bizitzera bere Iruñeko baratza zoragarria desjabetua izan ostean. Urte horretan baratzan moldaketa eta konponketa garrantzitsuak egin genituen (harri-lubetak, bideak,...) berriz ere baserriari errentagarritasuna eman ahal izateko.

-Zer nolako jarduerak burutzen dituzu baserrian Elena?

Esan bezala, inongo produktu kimikarik gabeko nekazaritza lantzen dugu, eta barazkiak egunero San Martin azokan saltzen ditugu. Asteazken zehar nire iloba Ainara egoten da saltzen eta larunbatetan ni neroni.



Elena Donostiako San Martin merkatuan

Ni baserrian egoten naiz barazkiak jaso, garbitu eta antolatzen merkaturako prest izateko. Baratzan lanean Agustin eta laguntzaile bat egoten dira.

Azken aldian baserrira ere jendea hurbiltzen zaigu produktuak erostera eta nire helburua ahalik eta gehien bertan zuzenean saltzea da.

-Nola izan zen nekazaritza ekologikora pasatzeko momentua?

Baserrian gurasoek "kimikoetan" oinarritutako nekazaritza burutzen zuten eta nire ustetan, etxe-ko 3 pertsonak gaixotasun larriak izateak honekin lotura zuzena izan zuen.

Dena amaren gaixotasunarekin hasi zen. Orduan hasi nintzen barazkiei botatzen genizkien produktuei buruz zalantzak izaten. Baina gauzak aldatzeko aukerak bazeudela uste nuen eta hau egiteko pausuak eman nahi nituen.

Horretarako, Kolonbiatik bueltan Nafarroara joan nintzen, Iruñeko Aranzadi erdigunera, Agustin Beroiz ezagutzera eta bere ondoan ikasten aritu nintzen denbora batez. Alemaniara ere joan nintzen Maria Thun ezagutzera. Gaur egun egutegi biodinamikoa erabiltzen dugunok, Maria Thunek sortutako egutegia erabiltzen dugu. Egutegi honen bitartez, urtean zehar zein egunetan zein lan egin behar dugun (landatu, erein...) dakigu, gauza bakoitzak bere egun egokia baitauka.

Gaur egun Agustin Beroiz gurekin bizi da, eta Taula baserrian egiten duen lana izugarri garrantzitsua da, bere jakinduria sakona gure lurretara egokitzen baitu. Agustinen historiari buruz gehia-

go jakin nahi duenak, interneten bere inguruko berri asko daude:

(<http://www.elikaherria.eus/agustin-beroiz-iruneko-aranzadiko-baratzeetatik-kanporaturik-astigarragan-baratzezain/?lang=eu> ,.. etab)

-Zure produkzio sistema zertan oinarritzen da?

Galdera hau erantzuteko konpostaren gunera hurbiltzea da onena. Hemen dago baratza honen anima, oinarria: konposta. Hemen ikusi dezakezu ximaur freskoa, ekarri berria. Igeldoko baserri batetik ekartzen dugu, ez du edozein ximaurrek balio eta han topatu dugu gure ustetan egokiena dena. Egitura jakin bateko ximaurra izan behar du, lastoarekin nahastua, etab. Gero ximaur honi urtean zehar baratzan pilatutako landare hondakinak nahasten dizkiogu, hauek materia suspertu egiten baitute.

Eskua bertan sartzen baduzu ikusiko duzu ze berotasuna igortzen duen: egoste prozesuan dago. Bakteriak beren lana egiten ari dira ximaurra deskonposatzeko. Honetarako oxigenoa behar dutenez, ximaur honi ekaineko ilbeheran buelta eman behar diogu eta uztailan berriz beste buelta bat. Makina bat alokatzen dugu lan hau egin ahal izateko. Guztira 5 mugimendu ematen dizkiogu. Negua pasatzeko eta ez bustitzeko, hemen ikusten duzun aterpe hau egin genuen. Irailean sartzen dugu bertan jadanik konposta bihurtu den ximaurra.

Konposta ezinbestekoa da gure baratzan: lurrari bizia ematen dio, lurraren egitura zuzentzen du, lurra biguindu, elikatu eta orekatzen du, modu honetan barazki osasuntsuak ekoiztu ahal izateko.

Gure etxean, garai batean ondu gabekoa, freskoa, zabaltzen zen eta alde handia dago modu honetan



Bisita bateko lagun talde bat konposta gertutik ezagutzen

egiten bada. Konpost on bat egiteak baratza osasuntsu bat bermatzen du.

Bestalde, izurriteen eta “belar txarren” aurka ez dugu produktu kimikorik erabiltzen. Belarrak kentzeko lurra aldiro-aldiro jorratuz, eskuz kentzen ditugu, hau ere oso puntu garrantzitsua da gure sisteman. Produktu hauek osasunarentzat kaltegarri izateaz aparte, produkzioaren oinarri den lurra kutsatzen dute.

Txandakako laborantza eta laborantza asoziatiboak ere gure sistemaren oinarri dira. Izurrite eta gaixotasunetatik babesteko, landare aromatikoak erabiltzen ditugu. Landare hauek askoz erakargarriak dira izurriteentzat eta gure barazkietatik aldentzen ditugu horrela.

-Nola planteatzen duzu “ baserrian bertan” saltearen ideia hau?

“Basherri sarearekin” elkartu nintzen duela bi urte eta kontsumo talde batzuk dauzkagu martxan orduz geroztik. Astero banatzen ditugu saskiak baserrian bertan, herriko jendeari bertan erosteko aukera emanez, gure baratzen zer ekoizten dugun gertutik ezagutaraziz.

Asteroko saskietan garaiko barazkiak sartzen ditugu, momentu horretan baratzak ematen duenaren arabera. Saskia jasotzen dutenek badakite aste horretan zein produktu izango dituzten, aldeztatik esaten baitiegu.

-Oso gustura aritu gara hizketan eta dagoeneko baratzari buelta osoa eman diogu. Bukatzeko, azken galdera luzatzen dizut: nola ikusten duzu etorkizuna?

Guretzat hau dena, lanbide bat izateaz gain, bizi-modu bat ere bada. Ingurua errespetatuz orekan

bizi nahi dugu, nekazaritza arduratsu bat eginez. Gaur egun eta orokorrean, jendeak sukaldean gero eta denbora gutxiago pasatzen duen arren, iruditzen zaigu elikadurari garrantzi handia eman behar diogula, osasunarekin lotura zuzena baitu. Eta gu horretan ari gara, elikagai garbi eta osasuntsuak ekoizten.

Lanbide gogorra den arren, ilusioa eta lanerako grina badauzkagu, eta beraz, aurrera jarraitzeko asmoz gabiltza. Esan bezela, salmenta zuzena egiten saiatuko naiz baserrietik bertatik. Dagoeneko badira astigartar dexente gerturatzen direnak eta jendea hurbiltzera animatzen dugu.

Gu prest gaude zer egiten dugun eta nola egiten dugun jendeari erakusteko. Are gehiago, inork hemen nekazaritza sistema hau ikasi nahiko balu ere, erakusteko prest geundeke.

Inork Elenaren baserria ezagutu, bere sistema ikasi edo produktuak erosi nahiko balitu, telefono zenbaki honetan 617086127 berarekin harremanetan jarri daiteke.

Erakunde, herritarrok... gure herriko ondarrera gerturatu gaitzen; berau gertutik ikusi, ezagutu eta maitatzea oso garrantzitsua da. Hurbildu gure baserriari, nekazari eta abeltzainengana beldurrik gabe, gu beraien beharrea gaude eta beraiek gure beharrea daude. ■



Gaizka Irigoien Goikoetxea

Taulako baratza (urrian ateratako argazkia)

KULTUR ETXE BERRIARI

ETA EKIPAMENDUEI BURUZ

HAUSNARTZEN

Aurtengoan bada herrian bolo-bolo dabilen gai bat, kultur etxe berria.

Ez da lehenengo aldia Astigarragako kultur etxea hizpide izan dena herrian, izan kultur etxe zaharra, izan kultur etxeko obrak, izan Sagardo etxea handitzea... Alabaina, kultur etxe berriaren inguruko gai honek aspaldi ez bezala mugitu dizkigu barrenak, Astigarragako hainbat elkarte eta herri mugimendutan gabiltzan asko samarrenak behintzat bat.

Hori dela eta, giro lasai eta lagunartekoan elkartu nahi izan dugu Astigarraga Aldizkaria osatzen dugun lantaldekook horietako batzuekin, helburu nagusi batekin: haiek zein iritzi duten, zein itxaropen dituzten eta nola sentitzen diren jakitea.

Izan ere, nahiago izan dugu gaurkotasuna duen gai baten inguruko artikulua egin beharrean elkarrekin gogoeta egin, eta hausnarketa horren berri ematea aldizkarian, oro har ekipamenduez eta zehazki kultur etxeaz.

Lantaldea osatzen dugun lau kideoz gain, Aiztondo, Xaguxar, Astigar, AEK eta Gazte Asanbladako ordezkariak bildu ginen.

Gogoetarako zeregin horretan ia aho batez onartzeko modukoak izan ziren bertan bildutakoek adierazitakoak. Hori dela eta, 5 puntura laburbiltzea iruditu zaigu aproposena, bakarkako iritzi eta adierazpenetatik harantzago.

Herriko elkarteek
zein iritzi duten,
zein itxaropen
dituzten eta nola
sentitzen diren
jakitea.



Hona, beraz, puntu horiek:

- **I**nformazio gutxi jaso dugu eta ari gara jasotzen udal arduradunengandik kultur etxe berriaren eta, oro har, ekipamenduen plangintzaren inguruan. Orain badirudi proiektua nahiko definituta dagoela, baina ez guztiz. Tarte horretan, informazioa eskatu dugunean bakarkako bileren proposamenarekin erantzun zaigu.
- **K**ultur etxe berria proiektu estrategikoa dugu herrirako eta elkarteok parte hartu behar genuke hasieratik bertatik prozesuan, ekarpenak egiteko, iritzia emateko eta laguntzeko. Prozesu horretan parte hartzeak partaide sentiaraziko gaitu eta egiten dugun lana aitortzen dela eta erakutsiko luke neurri batean. Prozesu horrek ez luke teknikarien eta udal-ordezkarien iritzian bakarrik oinarritu behar.
- **E**lkarateok ez dugu banakako bilerarik egin nahi, helburua ez baita nor bere beharrak zehaztea eta horren arabera proposamenak egitea. Herritarren behar orokorreari erantzun behar die kultur etxeak eta, oro har, ekipamenduen planak.
- **K**ultur etxe berriak ez die behar guztiei erantzungo. Hortaz, ekipamenduen argazki oso bat behar dugu, mapa moduko bat. Argazki hori osatzeko erabilgarri dauden espazio guztiak hartu behar dira kontuan eta ezin ditugu ahaztu Astigarraga egunetik egunera handitzen ari denez etengabe sortzen ari diren behar berriak. Ez dezagun sortu sorburutik txiki geldituko den kultur etxea eta berehala hanka motz geratuko den ekipamendu sarea. Etorkizunera begira egin behar dugu lan.
- **K**ultur etxean zer sartu beharko litzatekeen? Guztion artean adostutakoa, baina nagusiki, erabilera eta balio anitzeko aretoak (tarteak, arte eszenikoetarako auditorioa). Hainbat irizpide azter daitezke bertan jarri beharrekoa erabakitzeko (jende kopurua, jarduera mota, indartu nahi dena...), baina ez lukete erabilera bakarreko eremu izan behar. Nolabait esateko, baimena eskatuta guztiok erabiltzeko modukoak, giltzaren jabetzara mugatu gabe. Astigarragako Herri Eskolan dagoen aretoaren antzera, adibidez.

Horiek izan ziren kultur etxe berriaren eta ekipamenduen inguruan egindako hausnarketa nagusiak, baina bestelako gaiak aipatzeko egokiera ere izan genuen.

Horien artean izan ziren liburutegiaren papera, kultur kudeaketaren ereduak, herrian antolatutako ekintzetako parte-hartzea, herriko sorkuntzaren presentzia, herriko taldeen dinamika, indar eta erreleboa, gazteentzako esparru falta, udal-ordezkariei eta langileen eta herriko eragileen arteko komunikazio falta, Astigarragara bizitzera etorritakoak herri dinamika horretara erakartzeko zailtasuna eta, oro har, gizartearen inplikazio eskasa, horretan kultur etxe berriak egin dezakeen ekarpena.

Edonola ere, gai horietako bakoitzak beste solasaldi edo saio baterako ere ematen duenez, hurrengo baterako utziko ditugu, bien bitartean zuentzat ere hausnarketara gai izan daitezkeelakoan.

“EN ERGOBIA TAMBIÉN HUBO UN ASTILLERO”


Lourdes Odriozola Oyarbide

Largo y tendido se ha hablado en los últimos meses de la importancia que antaño tuvieron los ríos en Gipuzkoa en la articulación de las comunicaciones y las relaciones económicas y sociales de sus vecinos. Uno de ellos, fue el Urumea.

La investigación histórica realizada en el Archivo del Marqués de Valde-Espina y en diversos fondos municipales, provinciales y nacionales para la elaboración de los contenidos de la exposición itinerante “Sagardo ibaiak, bizitza iturri”, promovida por Sagardo Lurralde, puso de manifiesto, entre otras cosas, que el Urumea fue fuente de vida y riqueza para las gentes del Valle.

Descubrimos que el río era navegable desde Donostia a Hernani y que contó con 16 puertos. De ellos cuatro estaban enclavados en la jurisdicción de Astigarraga; eran los llamados “Aiozategui”, Chanalea o Canalea o Gartziategi, Castillum y Ergobia o Domikuzanea, siendo este último el más importante de todos.

Pero Ergobia fue mucho más que un puerto fluvial. Era uno de los principales lugares de tránsito del Urumea en el que había un vado o peaje junto a la casa de Ergobia, un servicio público de “barco del pasaje”, para trasladar a la gente de una orilla a la otra, y ¡hasta un astillero!





Planos de Ergobia localizados en el Archivo Histórico Provincial de Zaragoza, siglo XVI.

La información localizada sobre el astillero de Ergobia es muy puntual pero, al mismo tiempo, bastante significativa. Hemos tenido conocimiento de su existencia gracias a la documentación conservada por los titulares de la Casa de Murguía. Más concretamente, por el pleito que en 1575 la Provincia de Gipuzkoa y el Concejo de Astigarraga promovieron contra Felipe de Murguía por la construcción y el abono del coste de la obra del puente “rreja de madera por donde pasen los caminantes de a pie e de caballo e ganados aze millas, porque asi conviene al servicio de su magestad e al bien universal desta prouincia [...]” levantado en Ergobia.

Un documento del Archivo de la Casa Murguía habla de la existencia del astillero.

Su antigüedad se remonta cuando menos a los años finales del siglo XV o a la primera mitad del

siglo XVI, puesto que en 1575 el lugar en el que estuvo emplazado recibía el topónimo de “estillero viejo”. En otras palabras, para esta fecha ya no estaba operativo y debió de trabajar en los años en el que el sector naval de Gipuzkoa vivió una de las etapas más prósperas de su historia.

Uno de los pilares del puente de Ergobia fue colocado en el lugar donde estuvo el astillero.

El tinglado estuvo enclavado en el mismo punto en el que fue puesto uno de los contrafuertes o estribos del puente nuevo de madera de Ergobia y en frente del “lugar llamado de Arcayça, que es cerca del arroyo que baxa e descende de la casa de Aramburu”, sito en jurisdicción de Donostia, que era el paraje donde se colocó el otro de los contrafuertes de la pasarela.




Aunque hasta la fecha no disponemos de datos acerca de sus características ni infraestructura, probablemente fuera muy similar a otros astilleros guipuzcoanos coetáneos en el tiempo.

En esta época, las factorías navales no solían ocupar extensos terrenos ni tenían la infraestructura que se asocia a los grandes astilleros. A lo sumo disponían de unos cuantos cobertizos donde se establecían las gradas y se guarnecían los materiales constructivos, fundamentalmente, madera y hierro. En realidad, tan sólo eran lugares elegidos porque las maderas podían ser transportadas fácilmente hasta ellos y porque la ribera del río reunía las condiciones necesarias para la manufactura naval: piso firme y llano para almacenar el material y llevar a cabo la construcción naval; y situado de tal forma que la botadura de las embarcaciones se

El astillero de Ergobia fue de titularidad pública y no estuvo controlado por la Casa de Murguía.

Por lo que a su propiedad respecta, fue un establecimiento de titularidad pública y no privada, como en un principio podría pensarse, habida cuenta que en él se fabricaron naos a costa de los concejos de Astigarraga. En él los Marqueses de Murguía no tuvieron potestad alguna. Es precisamente ésta la razón por lo que pudo ser utilizado por los vecinos de la localidad sin tener que pagar arrendamiento alguno o, en el peor de los casos, un canon inferior al que tendrían que abonar los constructores de otros municipios. Esta suma variaba de acuerdo al porte y las dimensiones del barco




podía hacer con cierta seguridad. Por esta razón, debió de ser simplemente un espacio en el que se instalaron diversas gradas de montaje y en el que se reunieron los hombres y los materiales durante el tiempo que duraba la fabricación o reparación de los barcos. Una vez finalizadas estas labores, el sitio quedaría abandonado hasta que nuevamente fuese necesitado. En otras palabras, debió de ser un emplazamiento utilizado ocasionalmente para armar las naves y no un edificio o infraestructura permanente.

que se quisiera manufacturar.

En el pleito anteriormente referido, se menta explícitamente que en estas gradas se fabricaban “naos”, es decir, los barcos más grandes de aquella época.

La nao era la embarcación dominante en las Flotas y Armadas Reales de los siglos XIV, XV y XVI. Gozó de gran fama en su tiempo por las buenas calidades y prestaciones que tenían. Era una nave mercante manca y de aparejo redondo, más bien corta de quilla y dotada de un considerable lanza-



miento. Su aparejo consistía en bauprés, a proa, con cebadera; trinquete, en el tercio de proel, con velas de trinquete y velacho; mayor, con velas de mayor y gavia; y mesana, a popa, con mesana latina.

En Ergobia se fabricaron barcos de grandes dimensiones.

Al igual que ocurría en otros astilleros fluviales dedicados a la manufactura de barcos de grandes dimensiones, en Ergobia únicamente se debieron de fabricar los cascos de las naos. Posteriormente, serían conducidos en lastre hasta Pasaia, principal puerto de Gipuzkoa, donde se terminaban los trabajos de la “carpintería de blanco” y eran arbolados.

Además de las naos, es muy probable que en las gradas de Ergobia se realizaran algunas gabarras y alas para el transporte de las mercancías por el río. Y también, que en él se hicieran labores de mante-

nimiento y reparación a los barcos que subían y bajaban surcando las aguas del Urumea. No obstante, la documentación nada dice a este respecto.

Otro tanto de lo mismo ocurre con los datos relativos al volumen de su producción, los constructores que trabajaron en él o de sus clientes. De ello nada sabemos. Aún y todo sería muy factible que esta factoría se dedicara a la manufactura de barcos de grandes dimensiones cuando los principales centros navales de Gipuzkoa (emplazados en el Oria, Urola y Deba, y en menor, grado en el puerto de Pasaia) fueran incapaces de atender a toda la demanda del mercado.

Muchas son las interrogantes que tenemos en torno al astillero del Ergobia, pero los pocos testimonios que han llegado hasta nosotros son de gran valor: nos han posibilitado conocer una actividad económica un tanto desconocida en Astigarraga y en la que los guipuzcoanos fuimos punteros en la Península e, incluso, en algunos momentos hasta en Europa. ■

ARANTXA TAPIA:

Zumaiatik
Astigarragara
begira



Arantxa Tapia Otaegi Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburua da Eusko Jurlaritzan. Maiz ikusten dugu Iñigo Urkullu lehendakariaren alboan, enpresen topaketa batean edo ekonomiaren bilakaeraz hedabideen aurrean.

Ezkondua eta bi alaben ama, 29 urte daramatza Zumaian bizitzen, baina jaio, gure herrian, **Astigarragan jaio zen Arantxa Tapia**. Eta horixe eskatu diogu, sorterrira begira kontu kontari aritzeko tartea.

.- Arrobitxulon jaioa zara. Bai, Astigarragako kaxkoa eta Ergobia artean. Atzealdean erribera eta ibaia. Herritik urruti egiten zen, argirik gabe, batez ere etxerako orduan, ia-ia beste auzo batera joatea bezala. Gure etxea bota zuten eta orain errotonda bat dago. Parean pasatzen garenean amak beti esaten du; "hara gure etxearen lekua, ez dute beste etxerik egin, zer egongo eta.. errotonda".

.- Eta txikitako jolasak? Adin beretsuko hiru nexka ginen auzoan, kaxkora joatea konplikatu zenez, etxe giran txingoan eta soka saltoan ibiltzen ginen. Patinetan eta bizikletan hala moduz, lekurik ez zegoelako, beti kalean. Anaia ni baino dexente gaz-

teagoa dut, eta etxean geratuz gero aspertu egiten nintzenez, lagun bila beti kalera...

.- Astigarraga Donostiako auzoa zen eta zerbitzuak gutxi. Bai, medikutara Txomiñenera joaten ginen, anbulategira, autobusa hartu eta haraxe. Gaur egun ia-ia hirugarren munduko bezala ikusiko genuke...

.- Zer txoko aldatu dira gutxien, agian Goiko Iturri? Osaba parrokoa plazan bizi zen eta beste osaba ere bai. Harekin askotan joaten ginen eta uda partean sagardoa freskatzera eramaten genuen Goiko Iturrira. Ez zegoen ia biderik eta mendira joatea bezala zen neurri batean ume koxkorrentzat, baina bai, inguru hori errekonozitu daiteke. Eta Sagardo Etxea dagoena gure hasierako kolejioa zena, lau, bost urterekin. Gero ikastola dagoen mojen kolejiora joan ginen. Lehen hezkuntzan erabaki zuten mutilentzat bakarrik izango zela, eta neskek kanpoan geratu ginenean, Martutenera pasa ginen.

.- Donostian ikasi arren, lagunartea herrikoa? Bai, kuadrilla beti Astigarragakoa. Lagun bakarra geratu da herrian bizitzen, baina konplikatu izan arren, saiatzan gara tarteka elkartzen. Santiotan, urtero egiten dugu afaria.

.-Santioak eta San Rokeak: Erromeriara joateko ohiturarik bai? Santio egunean askotan igotzen gi-



nen aitarekin. Asko gustatzen zitzaion mendira joatea. Ni alfer xamarra nintzen baina berarekin arrastaka eramaten ninduen. Ederki akordatzen naiz, eta noski, gero gaztetako “Verbena maravilloso” haiek. Larunbat gaueetan Egan, Akelarre, Minxoriak... asko disfrutatzen genuen. Eta asteburutan Hernaniko Tilo setan edo Oialumen ere nahiko dantza egin dugu...

.- Euskara eta ingelesa eskolaz kanpo ikasi zenuen. Ez da hala? Bai, ingeleseko akademiara umetan hasi nintzen; amaren kontua izan zen. Jabetu zen beharko nuela, eta halaxe hasi nintzen. Bestalde, guk ikasketa guztiak gaztelaniaz egin genituen, gaztetan kuadrillako batek esanda D ereduak azterketa prestatzeko klaseetara joan ginen EUTG-ra. Berak atera zuen, nik ez, baina oso ondo etorri zitzaidan gero jarraitu eta EGA ateratzeko. Tesia euskaraz eta gaztelaraz egin nuen, eta hari esker ez balitz, gaur egun ez nuke horrela idatziko edo testuak prestatzerik izango.

.- Zergatik Industria ingeniari-tza? Ez dakit oso ondo zergatik. Lehen urtea gogorra izan zen: bost asignaturatik bi gaititu nituen ekainean eta hiru geratu zitzaizkidan irailerako. Nire buru gogorke-riaz atera nituen, eta berriro egin-go nuke karrera bera. Nahiz eta karrera osoan bereziki zerbait ez asko gustatu... Gero jabetzen zara hark lagundu dizula burua eratzeko, egituratzeko, arazo bati aurre nola egin erabakitzen.

.- Ingeniari familia zarete erabat? Bai, denak. Senarra eta bi alabak. Ane Mirenek, zaharrenak, ingeniari-tza industrialak egin du eta elektrikoa, guk beza-la, eta bigarrenak ingeniari-tza biomedikoa.

.- Bazkalostean kontu kontari orduan... “Friki” batzuk garelako diote alabek, gure txiste frikiak guk bakarrik ulertzen ditugula... eta nahiko barre egiten dugu horrekin.

.- Ardura politikoetara saltoa jarraian: Jaurlaritza, Foru Aldundia, Diputatuen kongresua... Elkar- rren osagarri al dira? Arraroena nire bizitza poli- tikoan kongresua izan da. Jaurlaritzan hasi, gero di- putazioan eta orain berriro Jaurlaritzan, kudeaketa gaiak izan dira, era batekoak edo beste-koak, baina kudeaketa. Kongresua zeharo desberdina da, oso aberasgarria, jendea ezagutzeko aukera ona ... baina gaur aukeran jarrita, nahiago dut kudeaketa Parla- mentuko lana baino...

.- Kriaren urte gogorretan asko galdu al dugu bidean? Enplegua galdu dugu eta industria arlo- ko hainbat enpresa ere bai. Herri bezala kostatu egin

zaigu ateratzen hastea. Beste leku desberdin batera ateratzen hasi gara. Aurreko legegaldiko lehen bi urteak oso gogorrak izan ziren, beste biak hoberantz, baina konfiantza handirik gabe, eta aurten enpre-kin egonda diote “ondo, lana sortzen ari gara, kontratuak dauzkagu, hazkundea”. Eta orain tokatzen zaigu benetan kalitatezko enplegua sortzea, ondo irakastea eta formakuntza ona ematea gure gazteei.

.- Laneko horrenbeste bidaia eginda, aisialdian bidaia zale al da Arantxa? Bakarren bat bai, lau- rok astebeteko irteeraren bat egin ohi dugu. Baina gustura egoten naiz etxe aldean irakurtzen, kotxerik hartu gabe hondartzara edo mendira irteerak egi- nez... benetako porrak dira.

.- Maiz etortzen al zara Astigarragara? Amaren etxera bai, berarekin egotera, baina herrira ez gara gehiegi hurbiltzen... Txotx garaian gutxienez sagar- dotegi bat egitea gustatzen zait. Denboraldiaz kan- po, baina aurten ere etorri gara Zu- maiako kuadrillarekin.

.- Eta nola ikusten duzu orain herria? Ez dut inor ezagutzen. Ka- lean, herriko betikoak bakarrik, amaren adinkideak. Ez da nire betiko herria, erabat desberdina dago.

.- Zure arduratik begiratuta, zer indargune ikusten dizkiozu? Hi- riburutik oso hurbil egoteak, ematen dio halako au- kera... uneotan ia bat dira Donostia eta Astigarraga, horrek zentzu positiboan aukerak ematen ditu. Bai- na bestalde, horren gertu egoteak herri bezala agian ez garatzea dakar, nortasun propioa galdu daiteke lotarako gune bihurtuz. Ez bada lortzen bere indar- guneak aurrera eraman eta identitate propio bat sortzea, bilaka daiteke “herri dormitorio” delako bat. Nik ikusten diot bikoizketa hori, eta sagardo-aren inguruan dagoen nortasuna aprobetxatu behar- ko litzateke zerbait gehiago egiteko. Sagardo etxetik eta hasi dira lantzen, eta hortik zerbait gehiago bul- tzatu behar litzateke.

.- Jaietan dagoen herriari zer opa dio Arantxa Tapia sailburuak? Bere bidea aurkitzea, nortasun hori nola landu. Ekonomiaren garapeneko sailburu naizen aldetik, bere ekonomia lagunduko duen bidea bilatzea eta ez bihurtzea bakarrik lotarako gune bat.

.- Eta Arantxak astigarragarrei? Festetan gaude- nez, ondo ondo pasa dezatela, nik ere ederki pasa izan dut eta herriko jaietan.

*... herriaren nortasun
propioa galdu
daiteke, lotarako
gune bihurtuz...*



Madeiras

contra la Violencia Sexista

Tres años, más de tres kilómetros y 7 encuentros realizados conforman el recorrido que lleva realizado Madeiras contra la Violencia Sexista.

Proyecto

Este proyecto impulsado por la Asociación Harituz, que cuenta con el apoyo de Emakunde, Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Astigarraga, y con la asistencia técnica de Equala, se propone crear un GRAN LAZO COLECTIVO, una pieza artística de muchos kilómetros, con el objetivo de crear espacios de diálogo entre la ciudadanía sobre la violencia sexista en todas sus manifestaciones y alcance.

134.462 mujeres denunciaron en 2016 ser víctimas de violencia de género en todo el estado. En lo que va de año 31 mujeres y 4 hijas e hijos han sido asesinados. Esta violencia no es una lacra social a erradicar, sino que se encuentra en el funcionamiento mismo de la sociedad. **El trabajo de MADEJAS se orienta** a abrir, mantener y profundizar un debate y una implicación de todas las instituciones y agentes sociales **con el fin de poder visibilizar la situación de desigualdad y discriminación que sufren las mujeres y que son la raíz misma de la violencia.**

La participación es un eje fundamental de esta iniciativa. Desde sus comienzos, el proyecto se encuentra en las redes sociales y a través de su facebook ha recogido adhesiones de asociaciones de más de 40 países.

Facebook: MADEJAS CONTRA LA VIOLENCIA SEXISTA con más de 3.000 seguidores.

Todo un ejemplo de SORORIDAD entre mujeres muy diversas y unidas por la misma causa.

Itinerario

Desde el 2014 el proyecto ha realizado encuentros en diversas ciudades, comenzando ese mismo año en Astigarraga.

En marzo de 2015 el testigo estuvo a cargo de las asociaciones asturianas Tertulia Feminista Les Comadres y la Asociación de mujeres de Barredos que organizaron actividades en 5 ayuntamientos del Valle de Nalón. - Langreo, San Martín del Rey Aurelio, Laviana, Caso y Sobrescobio. En noviembre de ese año, el encuentro se desarrolló en Benamejía, Córdoba y la gran madeja se expuso en la Diputación de Córdoba.

En marzo 2016 tocó el turno a Noblejas, Toledo. En mayo de ese año en Agullent, Ontinyent (Valencia) y Biar (Alicante). En noviembre el encuentro se realizó en Lisboa lo que supuso la internalización del proyecto. Allí en el marco del I congreso contra la violencia de género y promovido por Asociación Plataforma Derechos Mujeres Portuguesa, Madeiras contra la violencia sexista estuvo presente como ejemplo de implicación de la ciudadanía en la lucha contra la desigualdad.

En 2017, el pasado 4 de marzo, organizado por la Asociación de Mujeres Clara Campoamor, junto con Coslada Feminista y el Banco del Tiempo, con motivo de la semana 8 de marzo, el encuentro se realizó en Coslada, Madrid. El encuentro más reciente ha sido el 20 de mayo en Fuenlabrada, Madrid, organizado por la Asociación Alquimia Feminista, junto a la Concejalía de Igualdad de Fuenlabrada.

Próximos encuentros

Para este año se está organizando un encuentro en octubre en Navarra de mano de la asociación Andre Mari con la implicación del Ayuntamiento de Huarte. En noviembre se propone realizar un encuentro internacional "Madeiras en el mundo" en Astigarraga, con la participación de las mujeres de Túnez, de la Association tunisienne de Lutte contre les Comportements à Risque de Túnez. Nabeul. Túnez.



Para 2018 estamos preparando GIPUZKOA TEJIENDO IGUALDAD, con el objetivo de profundizar nuestras redes en el entorno cercano. Conocernos desde la diversidad de feminismos y poder unir la voz contra la violencia sexista.



Asociación HARITUZ

ASTIGARRAGA, 2016. URTEKO

HERRIARTEKO TXAPELKETAKO FINALISTA



Duela hamabost urte hasi ginen astigartarrok Herriarteko Pilota Txapelketan parte hartzen, 2001-2002 denboraldian, hain zuzen ere. Atzo izan bazen bezala gogoratzen dut lehenbiziko kanporaketa. Donostiaren kontra jokatzea egokitu zitzaigun eta, tanto bakar batengatik izan bazen ere, urte hartan lehenbiziko txandan txapelketatik kanpo gelditu ginen. Urteek aurrera egin ahala hobetzen joan gara, urte batzuetan kanporaketetan zorte gehiagorekin, beste batzuetan gutxiagorekin. Lehengo urtean iritsi zitzaigun egun handia, izugarria izan zen, 2016ko uztailaren 3an astigartar eta azpeitiarrez leporaino betetako Atano III. pilotalekuan finalean parte hartu baikenuen.

Herrian pilotak inoiz ez bezalako giroa sortu zuen, denok ilusioz beterik ginen eta Gipuzkoako bazter guztietatik bertan bizitako giro paregabea eta bi aldeetako jarraitzaileen kiroltasuna nabarmendu nahi izan zizkiguten, izan ere, aspaldian ez zuten horrelakorik ikusi.

Herriarteko Txapelketa, gainontzeko norgehiagoketekin alderatuta, berezia da, herri bakoitzak adin ezberdineko hiru bikote atera behar izaten dituelako, hala nola, kadeteak, jubenilak eta seniorrak. Kadeteen taldea Oier Olarra, Ganix Urdangarin eta Markel Zapiainek osatzen zuten eta azpeitiarren nagusitasuna nabaria bazen ere, gure kadeteek aurpegia eman zuten. Taldearentzako ezinbestekoak ziren, beraiek gabe Astigarraga ez zen finalera iristeko gai izango eta hori eskertu beharra dago. Emaitza 22 - 3koa izan zen, azpeitiarren alde.

Herrian pilotak inoiz
ez bezalako giroa
sortu zuen, denok
ilusioz beterik ginen...

Finaleko partida erabakigarriena jubenilena izan zen. Gorka Oiarbide eta Hodei Expositok partida ona jokatu zuten, baina azkenean, oso partida borrokatuaren ostean, Azpeitiak irabazi zuen bigarren partida ere (22-20). Finaleko txapelduna erabakita zegoen.

Hala ere, hirugarren partida jokatzeko zegoen, Harri Loidi eta Jokin Santxez bikotearen ordua iritsi zen eta hauek ere, oso partida berdindua jokatu zuten arren, garaipena Azpeitiarena izan zen (22-19).

Kirolaren nondik norakoak alde batera utzita, egun hartako momentu bakoitzean Astigarragako pilotarentzako oso garrantzitsuak izan ziren bi pertsona izan genituen gogoan. Pilotari, pilotari ohi, zein jarraitzaile orok somatu genuen Jose Luis Berakoetxea, *Joselu*, eta *Joxan* Salaberria entrenatzaileen falta. Beraien izenean, haien seme-alaba diren Asier Salaberria eta Maialen Berakoetxeak jaso zuten Astigarragari zegokion txapeldunordearen saria.

Ondoren, pilotari eta herritar asko Petritegi Sagardotegira hurbildu ginen bazkaltzera eta txapeldunak izango bagina bezala ospatu genuen urte hartako txapelketaren amaiera. Kirolariek azkeneko sorpresa bat zuten prestatuta, ahaztuko ez dudan nireganako esker oneko momentu hunkigarria prestatu baitzuten, harrituta, hitzik gabe utzi ninduen.



Joxe Mari Zubiarrain

JULENE ETA BERE FAMILIA

JULENE ETA BERE FAMILIA:

Julene 17 urteko neskato astigartarra da. Guraso eta bere neba Joanekin bizi da herrian betidanik.

Bizitza arrunta zuen Julenek 11 urte arte. Bere adineko beste gaztetxoek egiten zituzten jarduerak egiten zituen eta bizitza osotasunean bizitzen zuen. Baina aipatutako adin hori zuenean, gauetik goizera, gaixotasun arraro bat pairatzen hasi zen eta gaixotasunak gurpildun aulki batean utzi zuen, komunikazio eta mugikortasun arazoak izaten hasi zen. Labur esanda, gaixotasunak bizitza aldatu zion. Baina ez zen soilik Juleneren bizitza aldatu horrek dakarrenarekin, bere gurasoena ere guztiz aldatu zen. Bizi estiloa, balioak eta munduaren ikuspegia erabat aldatu zitzaizkien. Ordutik aurrera, Julenek zituen behar berriak asetzen ikasi beharko zuten eta indar ikaragarria atera behar izan zuten aurrera egin ahal izateko. Ezin ahaztu lehen aipaturiko Juleneren neba, Joanes. Berari ere egunerokotasuna goitik behera aldatu zitzaion eta hasieran kezka eta beldur ugari sortu zitzaizkion. Hala ere, aipatu beharra dago, egun, Joanes Juleneren erreferente nagusia dela eta egunerokotasuneko Juleneren zainketetan ere ezinbestekoa dela. Familia osoak aldaketa handia nabaritu arren, haien harremana sendotu eta guztien artean egoera normalizatu ahal izan dute maitasun eta indar ikaragarriarekin. Aipatu berri dugun familiak Juleneren mikrosistema osatzen du. Kasu honetan,

ezinbestekoa da mikrosistemaren garrantzia azpimarratzea, izan ere, Juleneren garapena onena izan dadin lagundu dutenak dira. Familiaren etengabeko konstantzia eta jarraipenak protagonistaren aurrerapen guztiak lortzea eragin du.

Ezin ahaztu Juleneren mesosistema ere. Kasu honetan, Juleneren garapen egokirako oso garrantzitsua izan da eskolarengandik jaso duen babesa. Azken finean, Juleneren testuingurutik jasotako babes eta laguntza orok bere garapen integrala osatzen lagundu du.

Beraz, lehen esan bezala, Julene eta bere inguruko babesa ezinbestekoa izan da aurrerapauso handiak eman ahal izateko.

IDEIA HONEN SORRERA:

2016 urteko ikasturtearen hasieran Unibertsitatean gizarteratzeko arazoak izan dituen pertsona baten inguruko lan bat burutu behar izan genuen. Lan hau egiteko aukeratu genuen kasua gaixotasun arraroa diagnostikatuta duen neska gazte baten egoera izan zen, JULENERena, ondoren esku-hartze bat egiteko asmoz. Familiarekin jarri ginen harremanetan eta inongo arazorik gabe beraien laguntza eskaini ziguten. Lan hau burutzen hasi ginenean ez genuen uste festa hau antolatzea iritsiko ginatekeenik, hau aurrerago sortu baitzen. Juleneri buruzko lana prestatzen genuen bitartean, Manolirekin, Juleneren amarekin, elkartu eta elkarrizketa bat egin genion. Kasuak izugarri erakarri gintuen eta Astigarraga herrian bisibilizazio askorik ez zuen kasua zela iruditu zitzaigun. Guk, gure lana burutu ahal izateko, esku-hartze bat diseinatu behar genuen eta Juleneren kasua ezagututa, festa solidario bat antolatzea otu zitzaigun. Izan ere, festa horren bitartez proiektuan ezarritako zenbait helburu bete ahal izango genituen. Hala nola, familiarentzat diru laguntza bat lortzea, herria sentsibilizatzea eta herrian kasuaren bisibilizazioa lortzea. Proiektua amaitutzat eman genuenean oso gustura geratu ginen. Egindako lana asko gustatu zitzaigun eta unibertsitatean oso harrera ona izan zuen. Beraz, emaitza hain positiboak ikusita, gure esku-hartzea Julene eta familiari aurkeztea erabaki genuen. Familiari ideia izugarri gustatu zitzaion eta udalera joatea izan zen hurrengo urratsa, beraien babesa ezinbestekoa baita festa solidario hau aurrera eramateko. Esan beharra dugu eskainitako babesa oso ona izan zela. Azkenean, guztion arteko elkarlan baten bidez, festa aurrera eramatea erabaki dugu.

JULENEREN FESTA (IRAILAK 15 eta 16)

Hasteko esan nahi dugu festa honen oinarria herria izatea nahi dugula, hau da, ezinbestekoa izango da astigartarren eta herriko taldeen babesa. Bi egunetan zehar, ekintza eta dinamika ezberdinak aurkitzeko aukera egongo da eta adin guztietara bideraturiko programa bat. Festak bi egun iraungo ditu, ostirala eta larunbata, bi egunetan sentsibilizatzea izango da helburua, baina horretaz gain, gozatzeko eta herriko babesa jasotzeko ere izango da.



Festa honen baitan, Xabi Salillas kirolariaren erronka izango dugu, modu solidario batean Juleneren egoerarekin bat egingo duelarik. Aipatu beharra dugu, egun horietan lortzen den diru laguntza guztia Julene eta bere familiarentzat izango dela, etorkizunean dituzten helburuak egia bihurtzeko izugarrizko laguntza izango baita.

Leire Zubiarrain San Miguel, Gizarte Hezkuntzako ikaslea
Amair Altamira Olaziregi, Pedagogiako ikaslea

Udal Liburutegia eta Josune, liburuzaina

Aurten Astigarragako Udal Liburutegiak 30 urte bete ditu eta ibilbide luze honetan badira gauza aipagarriak. Liburutegia Donostiako Udalak sortu zuen 1987an eta udaletxeko bigarren solairuan egon zen kokatua. Garai hartan Donostiako Udaleko liburuzain bat zen bertako arduraduna. Handik denbora gutxira 1988an Astigarragako Udala osatu zen eta Josune de Vicente kultura koordinatzaile eta liburutegiko arduradun izendatua izan zen. 1991n Kultur Etxea zabaldu zenean, Liburutegia udaletxetik egoitza berrira aldatu zen gizarte zerbitzuekin eta hirugarren adineko egoitzarekin batera.



Liburutegia gaur egun leku bizia da eta herritarrek asko estimatzen dute bertara joatea, liburu berriak irakurtzeko aukera izatea edo interneten nabigatzen egotea. Zenbait gaztek bertan ikasteko ohitura dute eta haurrentzako txokoa ere oso erakargarria da. 5.910 biztanle dituen herri honetan, liburutegiak guztira 2.406 bazkide ditu, eta esan dezakegu bazkide aktiboak direla. 2016. urtean 5.162 liburu, CD eta DVD hartu ziren maileguan. Horrek esan nahi du herritar bakoitza bataz beste behin joan zela liburutegira mailegu bat hartzera.

Bestalde, bilduman nobedadeak eta liburu berriak nabarmentzen dira, Joan den urtean guztira 1.015 liburu, CD eta DVD erosi ziren. Horretaz gain, **Josune liburuzainak** Buruntzaldeko liburuzainekin elkarlanean **Freskagarriak izeneko gomendio liburuska argitaratzen du urtero**, haur, gazte eta helduei zuzendutako irakurketa proposamen interesgarriekin.

*5.910 biztanle
dituen herri
honetan,
liburutegiak
guztira 2.406
bazkide ditu*

Azkenik, aipagarriak dira Jorge Carreroren gidaritzapean antolatzen diren literatura solasaldiak eta Lur Kortaren ipuin kontaketak. Astigarragan ez dago ez irakurtzeko aitzakiarik. Hori gutxi balitz, Udala Ergobiako auzo berrian ekipamendu bat sortzeko proiektua lantzen ari da.

30. urteurren honetan, zorionak Astigarragako Udal Liburutegia errealitate egiten duzuon guztioi.



Josune de Vicenterekin elkarrizketa

1. Egingo al diguzu zure buruaren aurkezpena? Liburuzaina naiz Astigarragan orain dela urte pila bat. Esango dut 29 uda honetan. Udaletxean hasi nintzen nire lana egiten udala osatzen ari zenean, eta gero 1990eko hamarkadan Kultur Etxera etorri ginen, udaleko beste zerbitzuekin batera.

2. Noiz eta nola konturatu zinen liburuzaina izan nahi zenuela? Kasualitatea izan zen. Euskadiko liburutegien lehenengo hastapenetan ibili nintzen herriz herri liburuak katalogatzen eta mundu honetan sartu nintzen. Gustatu zitzaidan eta hasi nintzen lanpostu bat bilatzen udaletxetan. Hori izan zen 1980ko hamarkadan.

3. Liburuzaina izango ez bazina zer izan nahiko zenuke? Nik uste dut irakaslea izango nintzatekeela, garai batean klaseak eman bainituen. Dena den, irakaslea izateko bokazioa izan behar da eta pazientzia asko ere bai. Zerbait kreatiboa egiten ere ikusten nuen nire burua.

4. Zein dira Astigarragako liburutegiaren berezitasunak? Liburutegi baten berezitasuna bertako irakurleek ematen dute. Beraiek zer liburu irakurtzen duten edo interesatzen zaienak.

5. Zer egiten duzu liburutegian, azalduko diguzu bertan egiten duzun lana? Nire ardurra da irakurle berriei harrera egitea, behar duten

informazioa ematea eta laguntzea bazkide txartela egiten eta beste zerbitzuak erabiltzen. Liburutegirako nobedadeak aukeratu behar ditut. Lan hau interneten bidez egin dezaket gaur egun edo, denbora baldin badut, asko gustatzen zait liburu-dendetan kuxkuxeatzea. Liburu hauek eta liburutegiko beste euskarriak, DVDak, CDRom... jendearen eskura jarri behar ditut gero, maileguan erabilgarriak izateko.


Honetaz gain, irakurketa sustapenerako jarduera batzuk antolatzen ditut. Bi jarduera nagusi ditugu: ipuin kontalaria, hilabete behin, haurrei zuzenduta eta literatura solasaldia, gazte eta helduentzat.

Beste aldetik, Buruntzaldeko liburutegien artean, udako gida bat kaleratzen dugu irakurleen artean banatzeko.

6. Zein dira zure iritziz Astigarragako liburutegian lanean hasi zinenetik bertan ikusi dituzun aldaketa nagusiak? Oso nabarmena izan da biztanleen hazkundera. Astigarraga orain dela 30 urte oso herri txikia zen. Azken urte hauetan populazioa bikoiztu egin da eta beste ekipamendu edo azpiegitura batzuk sortu dira (kiroldegia, musika eskola, Sagardo museoa, herri eskola...). Ekipamendu hauek txikiak gelditu dira eta beharretara egokitzen joan dira. Orain Astigarragak erronka berria dauka, kultur ekipamendu hauek berritzea, hobetzea eta etorkizunari begira diseinatzea.



Udal Liburutegia eta Josune, liburuzaina



...imajinatzen dut liburutegia jende gaztearekin lanean, indar berriekin lan proiektuak burutzeko.

7. Nola irudikatzen duzu etorkizuneko liburutegia? Zein dira zure ustez XXI. mendeko liburutegiaren ezaugarriak? Udalak proiektu bat dauka kultur etxe berri bat eraikitzeko eta hemendik urte t´erdira errealitate bihurtuko da. Liburutegi berri hau irudikatzen dut esparru gehiagorekin eta orain bezalako argitasunarekin edo argitasun gehiagorekin. Ezin dut imajinatu liburutegi bat eraikin baten azpian. Pentsatzen dut gero eta jende gehiago etorriko dela liburutegira ordenagailu pertsonalarekin edo beharko du ordenagailua maileguan. Agian belaunaldi berriek ez dute liburu fisikorik erabiliko. Irakurle digitalak izango dira eta irakurgailu sofistikatuetan irakurriko dute. Oraingo teknologiek aldaketa asko pairatuko dute eta beraien menpe egongo gara nahitaez. Beraiek gabe ezin izango dugu ezer egin, zoritzarrez. Espero dut nire erretiro garaian txoko bat aurkitzea liburuekin edozein liburutegitan edo agian eroriko naiz teknologia hauetan. Auskalo!!!

Baita ere imajinatzen dut liburutegia jende gaztearekin lanean, indar berriekin lan proiektuak burutzeko.

8. Zure liburutegiarentzako desio edo amets bat. Liburutegi berria atsegina izatea erabiltzaileentzat eta gustora egotea erabili behar dutenean. Beste helburua izango litzateke erakartzea liburutegira auzokide berriak eta adin guztietako jendea.

9. Liburutegian askotan eskatuko dizute gomendioak egitea. Gomendatuko zenizkidake liburu bat, pelikula bat eta liburutegi bat? Bi liburu gomendatuko dizkizut, azken boladan irakurri ditudan batzuk:

Euskaraz, *Deserria* haurtzaro, Maddi Zubeldiarena, eta gaztelaniaz, *Nosotros en la noche*, Kent Harufena.

Pelikula bat esango dut, *El otro lado de la esperanza*, Aki Kaurismäkirena. Liburutegi bat,

Ingalaterrako hiri batean, Worcester. Behin han pasa nituen opor egunak eta ireki berria zen liburutegi publiko hau, The Hive.

Oso modernoa da. Dena den, ekipamendu hauek eraldaketa handia izan dute azken urte hauetan eta kultur eraikin gehienetan nukleoa bihurtzen dira edo behintzat hauen inguruan mugitzen dira ekitaldi asko. Izar bat gara gaurko kultur eskaintza zabal honetan.

10. Zein da zure lanbideko zeregin atsegina eta zein da gorrotagarriena? Nire laneko lan atsegina publikoarekin harremana da. Bizilagun asko ezagutzen dut eta denbora pasa ahala, jendearen pozak eta tristurak entzuten ditut. Nire bizitzako zati oso garrantzitsua hemen pasa dut eta oso momentu onak gogoratzen ditut.

Lan gorrotagarrienak izaten dira estatistikako paperak bete behar ditudanean. Ez dut sinisten zenbakietan, baina derrigorrez bete behar dudana gauza bat da diru-laguntzak jaso nahi baditut. Beste bat izango litzateke, gure lan tresnek matxura izaten dutenean. Eskuko sistemara bueltatu behar dugu eta honek batzuetan gure lana oztopatzen du.

11. Galdetegi honetan aipatu ez dugun beste zerbait esan nahi al duzu? Aipatu nahi nuke herriko jendearen iritziek garrantzi handia dutela eta beraien iritziak edo ideiak ezagutu behar ditugula. Azken finean, beraiek izango dira ekipamendu berri honen erabiltzaile nagusiak.

Eskerrik asko Josune!

Arantxa Arzamendi

Astigarragako JAIAK 2017



Ehun da
ehun,
berrehun!



Uztailaren 22a, larunbata

- 10:00** 3X3 SASKIBALOI txapelketa.
- 12:00** TXUPINAZOA eta ERRALDOI eta BURUHANDIAK.
- 14:00** HAUR eta GAZTELEKUKO BAZKARIA.
- 17:00** HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA Foru plazan.
- 18:00** TXOKOLATE JATEA Foru plazan.
- 18:30** TXOSNA-IREKIERA.
- 18:30** TXARANGA.
- 19:00** SOKAMUTURRA TXIKIA.
- 22:30** IKUSKIZUNA.
- 23:00** KONTZERTUAK txosnan.
- 23:30** KALEJIRA.



Uztailaren 23a, igandea

- 10:30** HAURRENTZAKO TXIRRINDULARITZA PROBA.
- 12:00** HAURRENTZAKO JOKOAK.
- 13:30** DANTZA IKUSKIZUNA.
- 17:00** HAURRENTZAKO KALEJIRA Kaleetan zehar.
- 18:00** ANTZERKIA txosnan.
- 18:30** APAR FESTA.
- 19:00** TXARANGA herriko kaleetan.
- 19:30** HEGALUZE PINTXOAK.
- 23:00** RAP eta ROCK KONTZERTUA.
- 23:00** KONTZERTUAK txosnan.

Uztailaren 24a, astelehena

- 11:00 HAUR ETA GAZTE PARKEAK.
- 12:00 ABESBATZAren EMANALDIA.
- 13:00 ERRALDOI TXIKIEN kalejira.
- 13:30 TRIKIPOTEOA.

- 16:00 AULKI DANTZA ETA DANTZALDIA.
- 17:00 TXARANGA.
- 17:30 BOTILTZARRA ekimena.
- 19:00 DANTZA ERRUMANIARREN erakustaldia.
- 23:00 KONTZERTUAK txosnan.
- 23:30 DANTZALDIA.



Uztailaren 25a, asteartea

- 09:30 DIANA.
- 11:00 MEZA.
- 12:30 UDALBATZAREN SOKA DANTZA.
- 13:00 KALEJIRA.
- 18:00 ASTIGAR DANTZA-ERAKUSTALDIA.
- 19:00 BERTSOLARIAK.
- 19:00 HAURRENTZAKO KALEJIRA.
- 19:30 IDIEN PISATZEA.
- 23:00 DISKO FESTA.
- 23:30 KONTZERTUA txosnan.
- 00:00 LARRAIN-DANTZA Foru plazatik.





Uztailaren 26a, asteazkena

09:30 ITURENGO JOALDUNAK.

10:00 HERRIKO TRIKITILARI GAZTEAK.

11:30 BASERRIKO TRESNA-EGILEN LANAK
ETA ERAKUSKETA: egurrezko eta
burdinazko tresnak, kaikuak...

11:30 SAGARDO DASTATZEA.

11:30 IDI DEMAK:
1.500 kiloko harria, lau idipare:
PAGADIZABAL, ETXETXO,
ELOLA eta MATXAIN.

12:00 AGIN LABURU eta
AITOR MENDILUZE bertsolariak.

14:30 BAZKARIA Rezola sagardotegian.



18:00 HERRI KIROL EN JAIALDIA
Foru plazan:

* Herrien arteko HERRI KIROL EN
DESAFIOA: Errenteria, Hernani,
Oiartzun eta Astigarraga.

* Herri kirol en ERAKUSTALDIA:
Emakume aizkolariak: Alazne
Etxaburua eta Irati Astondoa
Emakume harrijasotzailea:
Idoia Etxeberria.



19:00 HAURRENTZAKO DANTZALDIA.

19:30 KANTAUTOREAK txosnan.

19:30 TRIKITILARIAK Foru plazan.

22:00 KALEKO MUSIKA.

22:30 ZEZENSUZKOA.



Kaixo, Marilyn:

Douglas Kirkland.

Jakin ere ez duzu egingo nor den. Nik ordea, oso present neukan tabernatik irten nintzenean. Are eta gehiago idazten ari naizen une honetan. Ez nekien nola jokatu zurekin, zer esan, baina argi neukan zerbait egin behar nuela. Azkenean lortu dut nire barrena askatzea. Ondo dakizun lez, ez daukat pentsamenduak plazaratzeko era hoberik: hitzak haritzea. Asmatuko ote dut?

1961eko azaroaren 17an, Douglas Kirkland argazkilaria kanadarrak gau osoa pasa zuen argazki saio bat egiten. Norekin, eta zetazko izara tartean biluzik zegoen Marilyn Monroe berberarekin. Kirkland argazkilaritzan hasi berria zen, hogeita zazpi besterik ez zeuzkan; Monroek, aldiz, hogeita hamabost. Ametsetako izarra protagonista zela egindako azkenetako saioa, ziurrenik.

Baina gatozen harira. Gau hartako une batean, Marylinek bi laguntzaileak bidali eta argazkilaritari gonbita egin zion berarekin ohean sar zedin. Honek, ordea, ezetz, bere emaztea gogoan, eta kamera klikatzen jarraitu zuen. Profesional erabatekoa! Ez dakit ongi ala gaizki egin zuen, baina horrelako egoeretan ezetz esateko ahalmena duten gizonak burdinezko potroak dituztela pentsatu izan dut beti.

Ni ez naiz argazkilaria, baina buruan ondo gordeta dauzkat eskola garaiko irudi haiek guztiak. Gaurkoa ere bilduma berean gordeko dut betirako; nire Marilyn izan zarela aitortu beharra daukat, nahiz eta gu bion artean halako istorio zirraragarriak egon ez.

Eta orain banoa, nire burdinezko potroak hartuta.

Muxu bat,
zure Douglas



Urtzi Leonet Santa Cruz

Douglas Kirkland (Toronto, 1934) argazkilaria lehengoz Marilyn Monroe aurrez aurre ikusi zuenean, artean ez zituen 30 urte. Hockey partidetak argazkiak egiten hasitako gaztea besterik ez zen, Look aldizkariak bere bizitzako erreportaia izan zitekeena eskaini zionean: munduko emakumerik sexyenarekin saio bat egitea. "Ohea, izara zuriak eta xanpaina soilik behar ditugu" esan zion Hollywoodeko izarrak, segidan argazkilaria bi laguntzaileak bidali eta atea itxi aurretik.

"Gazte honekin bakarrik geratu beharko nukeela uste dut..."

Astigarragako

DANTZA TALDEAK (1)

Astigarragan, beste herrietan bezalaxe, bere historian, dantza talde asko izango ziren. Gehienak ez ditugu ezagutzen, baina XX. mendean, dantza talde batzuk ezagutu ditugu. Horietaz aipamena egingo dugu.



ASTIGARRAGAKO "LUISTARREN" DANTZA TALDEA 1951-1954

Partaideak. Ezkerretik / eskubira.

Zutik: Iñaki Garaño, Antonio Alberro, Emilio Arzallus, Joxe Migel Sarasua, Manolo Arzallus, Juantxo Miner, Joxe Mari Pagola, Paco Semperena, Kepa Miner.

Makurtuta: Paco Erdocia, Txomin San Sebastián (txistularia), Pedro Garmendia (danborraria), Joakin Arzallus, Joxe Mari Kortadi.

ZERI DEITZEN DIOGUN DANTZA TALDEA?

Dantza taldea —hitzak berak esaten du—, multzo batean bildu eta dantzan egiten duen gizon-emakume edo neska-mutil koadrila edo talde bati deitzen zaio. Taldeak izena eraman lezake herriarena, elkarte bate-na, alderdi politikoa, auzo batena, elizako kongregazio batena...

ELIZAKO KONGREGAZIOAK

Elizak, XX. mendearen erdialdera, gazteen bi kongregazio zituen. Bata emakumeena, MARIAREN ALABAK izenarekin ezagutzen zena, eta bestea gizonezkoena, LUISTARRAK izenarekin ezagutzen zena. Elizari lotuak, elizako ospakizunetan parte hartzen zuten: Aste Santuko prozesioetan, Korpus eguneko prozesioan, koruko abesbatzetan eta beste ekitaldi batzuetan. Luistarrek, baita ere, beren patroia zuten eta ospatu egiten zuten. Ekainaren 21ean, San Luis Gonzaga egunean. Egun horretan festak egiten zituzten.

Ba, aipamena egingo diogu gizonezkoen kongregazioak sortutako dantza taldeari:

ASTIGARRAGAKO LUISTARREN DANTZA TALDEA. 1951-1954.

1951. urtean sortutako dantza taldeak 1954. urtean amaitu zuen bere ibilbidea.

Parrokoak eta Luistarren elkarteak bultzatuta sortu zen lagun taldea, parrokiak laguntzen zuelarik.

Iñaki Rekalde zen dantza maisua, errenteriarra, bertatik etortzen zena astean bitan entsaioetara, iluntze aldera, tranbia zaharrean. Pedro Garmendia zuen laguntzailea.

Entsaioak Markesaren jauregiko frontoian egiten zituzten.

Dantzatzen zuten dantzak hauexek ziren: aurrekua, makil dantza, arku dantza, ezpata dantza eta zagi dantza.

Lehen emanaldia, 1951.eko Astigarragako festetako Santio egunean izan zuten eta beren saioak Astigarragatik kanpo ere eskaini zituzten, esate baterako, Ergobia, Martutene, Santiagomendi eta Urnietako festetan.

Txistularia Txomin San Sebastian zuten eta danborraria Pedro Garmendia.

Anekdotak gisa, arku dantza dantzatzen ari zirela, Kepa Minerri arku hautsi zitzaion, airera jaurti zuen eta jende tartera joan zitzaion. Zorionez ez zen ezer gertatu. (1)

IÑAKI REKALDE NOR ZEN

Jaso ditugun albisteen arabera, Erreterian ospatzen den Gipuzkoako dantza solteko txapelketan epaile bezala 23 aldiz egon zen, 1957tik 1979ra arte. 8 aldiz Txomin San Sebastianekin eta 15 aldiz Enrike Alberroekin (biak herriko semeak) konpartitu zuen epaimahaia. Normalean 3 kide izaten ziren epaimahaian. (2)

Miel Joxe Astarbe

(1) *Astigarragako luistarren dantza taldearen argazki eta albiste guztia Andoni Arzallusek eman dit. Eskerrik asko, holako altxor preziatua gordeta edukitzeagatik eta emateagatik.*

(2) *Albistea hau Jaso dut, Erreterian, Ereintza dantza taldeak argitaratu zuen GIPUZKOAKO DANTZA SOLTEAREN EGUNAREN egutegitik. 1992-07-25.*

Nekane Arzallus

Ezaguna dugu Gipuzkoako saskibaloitako talde nagusiaren presidente izateagatik. Orain 40 urte irten zen Ergobitiko Donostiara bizitzera joateko, baina ergobitar izaten jarraitzen du.

*“ NERE BIZITZAKO UNERIK
ZAILENEAN, AITA HIL
ZENEAN, ERGOBITAR ETA
ASTIGARTAR ASKOREN
GOXOTASUNA JASO NUEN,
ETA HORI EZ DA AHAZTEN”*



Galdera: Zer oroitzapen dakarkizu haurtzaroak ?

Nekane Arzallus: Garai hura “La bomba” izan zen niretzat. 13 lehengusu bizi ginen Ergobin eraikin berean, Arzallustarrak. Aitonarena zen Estankua eta amonak dendatxoia zuen. Denak elkarrekin ibiltzen ginen, Ergobin bertan, Astiarran etorri, trenbidez bestealde jolasean... kaleko bizia egiten genuen. Baloia bakarrik denentzat eta baloia Urumeara erortzen zenean, ibaira sartzen ginen bila. Niri tokatu zitzaidanean ondo gogoan dut Urumea aparrez beteta nola zegoen. Ergobin parkea jarri zutenean gu pozik eta “gaixtakeriak” egitea labaderora joaten ginen.

G: Txikitatik izan dituzu gustoko kirolak, baina neska izanda aukera gutxiago?

NA: Orduan futboleko jolasten genuen eta auzoan mutil guztiekin gustora ibiltzen nintzen, baita ikastolako patioan ere, baina entrenatzeko ordua iristen zenean, niri ez zidaten uzten neska izateagatik... Nik, aldiz, mutila nintzela esaten nien, ile motza eta Realeko kamisetarekin joaten nintzen, baina ezin!! Euskal dantzak ikastea zen ikastolan zegoen beste aukera, baina horretan txarra nintzen. Gaizki pasatu nuen garai hartan.

G: Gaur egungo egoera zorionez aldatu da...

NA: Erabat, gaur egun inbidia ematen dit neskek

edozein kirol egiteko duten aukerak. Bazen garaia!! Dena den, nik nahi nuen kirola ezin egin izanak eman dit kirolarekiko maitasuna, erronka bihurtu zelako, eta uste dut asko markatu nauela nire bizitzan. Gustatu eta ezin!!!

G: Zuek izan zintzen Arantzazuko Ama ikastolako lehen belaunaldietakoa. Ergobin hasi zineten...

NA: Bai. Leta Enea etxearen goikaldea zen gure patioa. Oso ume gutxi ginen Astigarraga eta Ergobikoak eta normalean bi gela elkarrekin egoten ginen. Gogoan ditut oraindik andereño Maria eta andereño Mari Carmen. Ondoren



*Eskubitik hasita, bigarrena da Nekane.
1976ko herriko jaien hasieran*

Martuteneko "Villa"-ra joan ginen eta Martutene eta Loiolako haurrekin elkartu baina, hala eta guztiz ere, dozena haur ginen eta bi talde elkartzen gintuzten. Garai hartatik andereño Felixi gogoan dut.

G: Musikarekin ere izan zenuen harremana?

NA: Baiiii. Ikastolan Miel Joxe Astarbek "Beethoven"-ek txistua erakusten zigun eta ondoren festetan edo egun berezietan herritik txistua jotzen irteten ginen, gaur egun egiten den bezalaxe.

G: Bilbon ikasi eta aita hil zenean etxeko enpresan hasi zinen. Enpresa munduan gizonak dira gehiengoa. Gogorra egin al zitzaizun?

NA: Ez bereziki. Beti bezala pertsonen arabera doa eta nik ez dut sentitu tratatu berezirik edo zailtasunik emakume izateagatik. Hori gehiago sumatu dut kirol munduan. Saskibaloitza taldearen zuzendaritza hartu aurretik, Realeko hautagaitza bateko kide izan nintzen, eta kazetari baten lehen galdera emakume izanik gizonen taldeko



G: Eta 11 urterekin Barandiaran Lizeora joan zineten. Aldaketa handia?

NA: Bai, aldaketa gogorra izan zen, urte berean aldatu genuen bizilekua eta ikastetxea... Ergobitik Urigainera joan ginen, ospitalen alboan, eta Arantzazuko Ama ikastolatik Barandiaran Lizeora. Egia da gela guztia joan ginela Lizeora 6. maila egitera, Martutenen 5. maila arte bakarrik zegoelako, baina gela askotan banatu gintuzten auzo askotako haurrak elkartzen ginelako (gogoratu orduan denak Donostia ginela) eta aldaketa nabaria izan zen. Baina, begira, Lizeoan eskolaz kanpo egiteko neskontzat hockeya eta saskibaloia zeuden eta ni orduntxe sartu nintzen saskibaloia munduan.

G: Baina Astigarraga eta Ergobirekin loturirik ez zenuen galdu...

NA: Ezta pentsatu ere, 11 urtekin Donostiara bizitzera joan ginenean, Astigarragako koadrila genuen eta lagunekin jarraitu genuen Hernaniko Tilosetara joaten, Oialumera, festetara...

G: Zure gurasoak, gainera, oso ergobitarak ziren.

NA: Bai, jende gutxi izanik harremanak oso estuak ziren eta aitarentzat Ergobiko festak galdu ezinak... eta, oraindik ere, ondorengoentzat Ergobiko festetan bueltaxka egitea ezinbestekoa da.



zuzendaritzan nire burua nola ikusten nuen izan zen, eta benetan harritu ninduen.

G: Gauzak aldatu al dira kirol munduan?

NA: Aldatzen doaz eta Gipuzkoan eredu gara Iraurgi, Eibar, nesken saskibaloia... Baina oraindik lan asko dago egiteko eta emakumeok ere asko egin dezakegu. Tristura ematen dit ikusteak kirol ezberdinetan jokalaria izan diren emakumeek gero ez dutela euren kirola barrutik jarraitzen... Gainera, kirol alorrean gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handia dago, are eta handiagoa goi mailatan. Beraz, asko dago oraindik egiteko.

G: Eta amaitzeko zer lotura duzu gaur egun Ergobia eta Astigarragarekin?

NA: Familiako ospakizun handi guztiak bertan egiten ditugu. Bataio, ezkontza edo funeralak. Nik osaba-izebak ere baditut bertan eta sare sozialetan adibidez "Ergobi" da nire goitizena... bertakoa sentitzen naizelako.

Ergobiko festetan ere aitaren izeneko lasterketa antolatzen dute, Memorial Bernardo Arzallus eta hori betirako geratzen da. Elkarrizketa hau aprobetxatu nahiko nuke, gainera, eskerrak emateko Ergobia eta Astigarragako bizilagun askori, nire bizitzako une gogorrenetan, aita hil zenean, euren hurbiltasuna, goxotasuna eta babesa sentitu nuelako, eta hori ez da behin ere ahazten.

Garbiñe San Migel

EZ ETSI

Malenen bizitza ez da bat ere erraza, neskatxa hau ezagutzen dutenak ez zuten berdina pentsatuko ordea, berak egunero jasotako mina ezkututzen daki, nahiz eta geroz eta handiagoa izan berarentzat gordetzen du. Agian ez duzue egoera hau oso ondo ulertzen, egia esan ez da sinplea hau ulertzea egoeraren barruan zauden arte, orduan, zoritxarrez, den-dena ulertzen duzu.



Malenek familia du, asko maite dute, bere gurasoak, bere anaia txikiak, bere lehengusu guztiak... baina berak huts ikaragarri bat sentitzen du bihotzean, berak asko maite duen pertsona alde batetik berarekin dago, baina bestetik, berriz, ez.

Arraroa ezta? Izan daiteke?

Malen egunero goizeko zazpitan esnatzen da eskolara joateko, urte honetan DBHn hasi da, eskola ez dago bera bizi den herrian, horregatik, lagunekin batera autobusa hartzen du hara garaiz iristeko. Ikasle oso ona da eta ez zaizkio lagunak falta, eskola gustuko du, han orduak zereginenez beteak pasatzen dituenez, huts ikaragarri horretaz ahazten da. Ez da ohikoena 13 urteko neska bati eskola gustatzea, baina berarentzat bere babesa da eraikin hura, min guztiez babesten duen harresia.

June Montero Sagarzazu

Jaiotza data: 2004.01.13 (13 urte)
Arrantzazuko Ama Ikastola DBH1

Sariaren xehetasunak:

28 Koldo Mitxelena
LITERATURA LEHIAKETA 2017
8-18 urte bitartekoak
Izenburua: EZ ETSI
Mota: Ipuina
Kategoria: D
Ikastetxea:
Arantzazuko Ama DBH1

Egilea:

June Montero Sagarzazu (13 urte)
D kategorian, Ipuina arloan,
Irabazlea

Eskolatik irteteen ez du atsedetik hartzeko denborarik, eskolaz kanpoko ekintza pila ditu, haien artean frantsesa, antzerkia, marrazketa... normalean berandu iristen da etxera eta ez du familiarekin hitz egiteko denbora askorik. Afaldu ondoren, segituan ohera joaten da gehien gustatzen zaiona egitera, irakurtzera. Ikaragarri gustatzen zaio irakurtzen ari den istorioaren barrenean sartzea eta berak nahi duen moduan liburuan agertzen diren pertsonaiak sortzea, irakurtzen duen bitartean beste mundu batean dago. Denbora luzea pasatzen du irakurtzen, ondoren berak gorroto duen unea iristen da, lotaratzea. Beldurra dio lotaratzeari, soberan daki zer gertatuko den, behin eta berriz etorriko zaio hutsunearen pentsamendu hura, ez dio bakean utziko eta gaua itota pasatuko du pentsamendu mingarri horretan, etengabe etorriko zaio pertsona horren aurpegiaren irudia, dezepzioa ageri zaio pertsonari aurpegian, tristura adieraz ezina. Malenek behin eta berriz pentsatzen du zer egin dezakeen pertsona horregatik, berak badaki zerbait egin behar duela, baina ez dago ziur zer den, gauak pentsatzen pasatzen ditu baina ez da zentzua duen ezer ageri.

Malenek ez du pertsona hori askotan bisitatzen, pertsona hori bisitatzean hutsunea oraindik eta handiagoa delako, ezin du jasan bere bizitzako pertsona garrantzitsu bat horrela ikustea, begirada galduarekin, irribarre gabeko ezpaineekin, tristura adierazten duen aurpegiarekin... gehienetan berarekin ez dagoela ematen du, bere pentsamenduak beste toki batean aurkitzen direla dirudi, beste batzuetan berriz, irribarre txiki bat ageri du ezpainetan eta horrekin nahikoa du Malenek, irribarre simple batekin, ez du gehiago eskatzen.

Bakarrik dagoenean gai honetan pentsatzen du eten gabe, nola orain dela urte batzuk pertsona hori berarekin dantzan aritzen zen, nola iraganean berarekin hitzaldi luzeak edukitzen zituen, nola edozein toki eta momentutan berarekin jolasean ibiltzen zen, nola bazkal orduan Malenek berak egindako pastelak jaten zituen, nola berak Malen txikia zenean kontu handiarekin zaintzen zuen, nola Malen lotaratzeko behin eta berriz abesti berdina abesten zion, nola berarekin astero bazkaltzen zuen, nola Malen erortzen zen bakoitzean berak esku bat prest zuen neska altxatzeko. Baina nola liteke orain dela urte batzuetako guztia aldatzea, nola liteke orain Malenek pertsona hura zaintzea? Egoera hau sinestezina da, amorruez bete dago, baina horrelakoa da bizitza eta Malenek onartu egin behar du, ez dago beste aukerarik, badakielako egoera hau ez dela aldatuko, ez du inork ez ezerk aldatuko, ezinezkoa da, ez dauka logikarik esperantza edukitzea, baina Malenek ez du galdu nahi, berak badaki egoera honek bakarrik okerrera egin dezakeela eta ez dagoela beste irtenbiderik. Jendeari hau kontatzen dionean ulertzen dutela esaten dute, baina ez da egia, ezinezkoa da hau ulertzea, ezinezkoa da sentimendu hauek azaltzea, inork ez daki zer den hau sentitzea, hau bizitzea eta hau onartzea, ez da batere erraza.

Askotan Malenek negar egiteko gogo du, baina badaki negar egiteagatik ez dela ezertxo ere aldatuko, ez du merezi. Jendeak aurrera begiratu behar duela esaten dio, baina ez dago prest aurrera jarraitzeko, ez egoera honetan behintzat. Zer gertatuko da ez badu aurrera egiten? Jendeak dena ondo joango dela esaten du, eta zer daki jendeak? Nola jakin dezakete dena ondo joango dela? Batzuetan dena amets gaizto bat dela pentsatzen du, baina ez du lortzen

esnatzea, bere bizitza blokeatuta gelditu da eta ez daki zer egin behar duen aurrera jarraitzeko, ez daki zeinek lagunduko dion aurrera jarraitzen. Ez du arrazoirik aurkitzen aurrera jarraitzeko, zertarako?

Azken finean badaki egunen batean dena bukatuko dela, orduan ez du hainbeste sufrituko, baina ez zaio bere bizitzako etapa hau ahaztuko, etapa honek aurrera jarraitzeko indarrak emango dizkio eta inoiz ez bezala sentituko da, askatasuna sentituko du. Egoera honek ez dio uzten ondo arnasa hartzen, itota sentitzen da, eta dena bukatzen denean egoera honek kendutako hegalak berriz aterako zaizkio eta denbora asko eta gero berriz hegan egingo du, berriz izarrak ukituko ditu, eta han egongo da, izar distiratsuen, begirada zuzenarekin, ezpainetan irri polit batekin eta poza eta askatasuna adierazten duen aurpegi eder batekin. Denbora asko falta dela hori gertatzeko, baina itxoingo du.

Denborak aurrera egiten du, baina Malenek hesia inguratu beharrean behin eta berriz jotzen du haren kontra, ez du irtenbiderik aurkitzen, labirinto batean dago eta irtenbidetik geroz eta urrunago aurkitzen da bere burua, galduta sentitzen da jendez betetako mundu handi batean eta ez daki nora joan, ez du zentzua duen norabiderik aurkitzen, ez dago ziur aurkitu nahi duenik, beldurra ematen dio bidearen bukaeran zerbait okerragoa aurkitzea, hala ere ez du etsiko, ziur dago irtenbideraino iritsiko dela, lehenago edo beranduago iritsiko da eta ez du esperantza galduko, bere indar guztia jarriko du bere helburua lortzeko eta zazpi aldiz erortzen bada zortzi aldiz altxatuko da, agian gaizki pasatuko du irtenbidea bilatzen duen bitartean, baina ez zaio axolako, berak bakarrik bukaerara iritsi nahi du. Agian horretarako egunak, asteak, hilabeteak ala urteak beharko ditu, agian gauak esna pasa beharko ditu, agian huts egingo du, baina berriro altxatuko da indar handiagoarekin eta pentsatu gabe berriro saiatuko da, ez du baztertuta utziko kontu hau, kontrakoa, bere denbora guztia bide hau jarraitzen agortuko du eta ez da batere damutuko, dudarik gabe, egunen batean oso harro sentituko da, badakielako hain gaizki pasa eta gero zerbait ona aurkituko duela, badakielako azkenean lasaitasuna aurkituko duela ez daki noiz, agian ez bihar ez etzi eta ez hurrengo urtean baina egunen batean bai. ■

Astigarragako Jaiak eta Jaialdiak

Izaki Gizaki bihurtzen denean ala

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai

*Gizonen¹ lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.
Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz,
bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz,
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea*

Xabier Lete²

Tendría también que pedir a ustedes -señoras y señores-, antes de comenzar, ciertas excusas por haber titulado este informe, alguno de sus apartados, con unas “intrigantes titulaciones”

Jorge Oteiza³

Aurten ere, olerkia... dena den, saiatuko naiz “ulerkia” izaten.

Astigarragara etorri nintzenez...

San Roke⁴ egunaren iñularrian,
Santiomendiko soroetan hortzaz gora etzanda,
haize epela zebilen, zeru gorri itzaltzen ari zela...
gure bazkari ederra, dantza
eta kantuen azken izpiak bezela.

Zeru ilundu, izarrak banan banan agertu
eta beraien hautsa banatzen guztion buruen gainean.
Ez nuen une horretan nabaritu
zer gertatzen ari zen...
ia zortzi urte beranduago
ilean zilarrezko hariak ditudala ohartu naiz,
seguraski izarren hautsak egun batean
bilakatuko gaitu oroimen eta haizea.



¹ Gizakion

² LETE, X. Kantatzera noazu. 6. abestia: Izarren hautsa. Artezi, 1976. Iraupena: 38' 50"

³ OTEIZA, J. (1971) *Quosque tandem...!* 2.Edic San Sebastián. Txertoa

⁴ 2009ko abuztuaren 16a

“Herri txiki” batera bizitzera etorri nintzenez benetan ezagutzen ez nauten asko tronpatu ziren esan zutenean berehala hiriburura bueltatuko nintzela. Ba justu kontrakoa, “herri txiki” hau nire buruaren hiriburu bihurtu dut.

Miresmen handia sortu zidaten herriko jai eta jaialdiek, jendearen inplikazioa eta identitate sentimendua oso handia zen: “Santioak” eta bi urtean behin “preludioa”. Dantzariak, abeslariak, antzerkia, musika, zarata, janari ugaria (eta edaria)... eta nola ez! gaztetxoan aldarrikazioak familian eta kalean.

Esan dugu, Astigarragako festak “Santioak” dira. Uztailaren bukaeran, hau da, uztailaren 25ean. Baina nire lehenengo “festa” oroimena San Roke egunekoa da, nola da hori posible?

Es curioso que siendo las fiestas del pueblo el día de Santiago, su víspera y el postrero, mi primer recuerdo de fiestas de Astigarraga sea del día de San Roque.

Familias, niños, mayores, jóvenes y fiestas.

Familiatan haurrak direnean herriko jaiak pozgarririk dira, beraien lehenengo irteerak izaten dira. Negoziaketak etxeratzeke orduarekin herriko festetan suertatzen dira.

Cuando hay niños y niñas en casa las fiestas del pueblo se convierten en la primera “mesa de negociación” de horarios para volver a casa.

Herrian jaio direnek, eta bertan eman dute beren bizitza, identitate sentimendua oso garatua dute. Beraiek dira herri bateko memoria bizia, eta herriko memorian gordetzen dira gure sustraiak, gure identitatea.

Garai bateko herriko jaiez jakin nahi nuen, eta duela urte gutxi batzuk arte gaztetxo ziren Xubito, Patas eta Betobeni galdetu nien (beti galdezka nabiltzen, jakin nahi dudalako nola gizakiok iritsi garen izatera...).

El Agosto agostado

“Opor sukarra hasi baino lehen, hau da, duela ez hainbeste... modu apalagoan bizi ginenean, Astigarragan 6 egun eta bi fetxatan izaten ziren festak, uztailaren 25, Santiago eguna (eta bere bezpera eta biharamuna) eta abuztuaren 15, Ama Birjinaren eguna (eta bere bezpera eta biharamuna). Santiago eta Ama Birjinaren egunen bihara-

munak San Joakin eta Santa Ana (Ama Birjinaren gurasoak) (uztailak 26) eta San Roke (abuztuak 16) egunak dira. Berez, San Roke egunean Santio mendiko ermitara erromeria egiten zen, urteko festei bukaera emateko. Hurrengo urtera arte herriko festarik... ez.”

Agian horregatik herriko festak hain funtsezkoak ziren, urtean behin, bitan.... bizilagunek festa giroan elkartzeko aukera zuten. Festa horiek batzen zituzten bizilagunak.

“Baina abuztuko oporretan kanpora joateko beharra zabaltzen hasi zen eta Ama Birjinaren festak “trasladatu ziren” Santio festetara eta orain gure festak 6 egunekoak dira. Abuztuko Ama Birjinaren festa horien izpia San Rokeko bazkaria gertatzen zaigu.... Baita ere izan daiteke Donostiako Aste Nagusia erakargarriagoa egin zelako. Izan al daiteke?”

Bueltatu gaitzen bada Santio festetara. Donejakue (Santiago) eta Astigarraga artean lotura berezia existitzen da. Gure herriko Armarrian (ez logo korporatiboan) Santiago Erromesa agertzen da, hain zuzen, Euskal Herriko Donejakueren irudirik zaharrenetako bat. Bai, Astigarrako herriaren ondare material-ezmateriala, hau da, bere identitatearen funtsean, sagardoaz aparte, besteak beste, Donejakue (ala Santiago) izaten da.

El tesoro de alabastro

La imagen de alabastro de Santiago Peregrino del S.XIII⁵, custodiada en la actualidad en el Museo Diocesano sito en la Basílica de Santa María del Coro de Donostia, estuvo expuesta en la ermita del pueblo hasta hace unos años. Es una imagen del Santo de las más antiguas de Euskal Herria, además representa un Santiago Peregrino⁶, y es el que se adoptó hace 30 años como símbolo de nuestro pueblo.

Gaur egun, besteak beste, jaietako zinegotzi kargua zin egin, argi dut nire herri-kuttunak, nire buruaren hiriburuak Herriko festarik alai, pozgarririk, itxaropentsu eta onenak merezi dituela. Astiartar guztion identitate sentimenduan jaiak eta jaialdiak funtsezkoak dira. Identitaterik gabe... ez gara ezer.

Astiartar naiz eta....
nire haurrak, baita ere.

[Urkiri Salaberria](#)

⁵ Según he sido informada desde la Comisión de Obras del Obispado el párroco de la Asunción de Nuestra Señora de Astigarraga realizó el depósito el 23 de Mayo de 1990. En la actualidad, las imágenes que podemos ver en la ermita y en el Salón de Plenos son copias de la década de los 90 del S. XX.

⁶ no el Matamoros visible en el anterior escudo de Astigarraga.



Duela hilabete batzuk, Xantiren aitak bere baserritik bi txito ekarri zituen gure gelara. Bata txuria, bestea, aldiz, gorria. Kaiolatxo batean ekarri zituen, pare bat egunetarako. Gelakideok segituan hasi ginen izen aproposak pentsatzen: *Erruperta eta Dorotea* jarri genien izena. Xantiren aitari eskolan txitoen egonaldia luzatzeko eskatu genion, eta honen baiezkoa jaso ostean txito, oilo eta oilarren inguruko galdera pila sortzen joan ziren egunez egun gure artean. Zer jaten dute? Nola desberdintzen dira arra eta emea? Zergatik egiten dute horrenbeste kaka? Noiz jartzen dituzte arrautzak? ... Galdera guzti hauen erantzuna bilatzen hasi ginen, familiari galdezka, *Erruperta eta Dorotea* ondo behatuz...

Aste batzuren buruan txitoak, ordurako oilo bihurtzen hasiak, gurekin batera patioa ateratzeko proposamena egin zuen Karmelek, beraien bizilekua txiki geratzen ari zela iruditu baitzitzaion. "A ze ideia bikaina!" aho batez onartu genuen gelakideok ekimena eta jolas garaian oiloak patioan askatu genituen. Orduetik aurrera, *Erruperta eta Dorotea* egunero irtetzen ziren gurekin jolastera, libre, han eta hemen, lurrean zeuden gure hamaiketako papurrak bilatuz. Jolasgaraia bukatzean, Mikel maisua ibiltzen zen oiloen atzetik hauek harrapatu nahian, gure algara eta barreak Santiomenditik ere entzun zitezkeen bitartean.

Laster, Karmelek beste proposamen bat egin zigun: "Zergatik ez dugu patioan oilategi bat egiten?" Xantik, oilategia eginez gero bere baserritik

Rodolfo oilarra ekarriko zuela agindu zigun, oilar alaia zela eta bere kukurrukuak dibertigarriak zirela esanez. Andereñoari ideia ona iruditu eta oilategi txiki bat egin genuen patioa izkina batean. A ze pozik zebiltzan gure oiloak Rodolfo oilarrarekin, guk botatzen genizkien hamaiketako puskak janez, zelaian zizareak bilatuz... Hainbestekoa zen oiloen poza arrautzak ipintzen hasi baitziren!

Baina astelehen euritsu batean, *Dorotea eta Erruperta* desagertu egin ziren, ez zeuden gure oilategian. Rodolfo, aldiz, txoko batean bakarrik eta beldurturik aurkitu genuen, "kukurruku" egiten ere ahaztu izan balitzaio bezala. Xantiren aitak, gure tristura aurpegiak ikusita, beste bi oilo ekarri zituen: "koko" eta "kaka". Hauek 3 egun besterik ez zuten iraun gure artean, goiz batean patioan

odoleztaturik akatuta azaldu baitziren. *Rodolfo* berriro ere mutu zegoen, bera izan baitzen herriotzetik libratu zen bakarra. Ene, zenbat galdera gelan andereñoari, eta honek ezin denak erantzun. "Nola gertatu da? Zergatik hil dira? Nork hil ditu? *Dorotea eta Erruperta* ere hilda daude? Zergatik hil dituzte? Nork zabaldu die atea?..."

Gelako kezka eta tristura oso nabaria zenez, udaletxeko arduradunei gutun bat idaztea adostu genuen ea hauek laguntzerik bazuten, baina ez genuen erantzunik jaso.

Hirugarrenez, Xantiren aitak (oso aita jatorra baita) beste bi oilo polit ekarri ditu. Oraingoak, *Binba* eta *Kiko* dira. Poliki-poliki *Rodolfo*, berriz ere, animatzen hasia da eta noiz edo noiz bere kukurrukuak entzuten ditugu patioan. *Bimbak* arrautza txuriak jartzen ditu. Mikel maisuak asteburuan kaiolan sartu eta gelara eramaten ditu badazpada ere, bertan seguru egongo baitira. Ostiraletan han ibiltzen da *Rodolfo*ren atzetik gora eta behera harrapatu ezinik, oso azkarra baita gure *Rodolfo*. Momentu oso dibertigarria izaten da, amatxori kontatzen diodanean berak ere barre egiten du egoera imajinatzean!

Poz-pozik gaude gure oilategiarekin, baina zuzendariak gaur notizia triste bat eman digu: bizilagunen batek ezin omen du lorik egin *Rodolfo*ren goizaldeko kukurrukuekin, eta zerbait pentsatu behar dugula dio. Xabatek mokoan zela ipintzeko proposamena egin du, baina ez zaigu batere gustatu.

Gauzak horrela, gure *Rodolfo*ri, hasieratik gurekin egon den oilarrari, guk bezainbeste sufritu duen horri, agur esan beharko omen diogula esan digu atezainak, guri horrenbeste gustatzen zaizkigun kukurrukuek beste norbait molestatzen omen dutelako.

Rodolfo agurtzeko eguna iritsi da, agurtzeko momentua... *Binba* eta *Kikoren* tristurarekin bat egin dugu.

Xantiren aitak *Rodolfo* furgonetan baserrira eramateko hankak lotu dizkio. Oso gogorra izan da guretzat horrela agurtu behar izana eta arratsaldean pentsatu dugu *Rodolfo*ri marrazkitxo batzuk egitea. Seguru, seguru... poz-pozik jarriko dela gutaz gogoratzean.

Xantiren aitak *Rodolfo* oso ondo zainduko duela agindu digu, eta baserrian nahi adina kukurruku egingo dituela, baina niri *Rodolfo* gure artean ez egotea ez zait bidezkoa iruditzen. Eta zuei, zer iruditzen zaizue? ■



**Astigarragako
HERRI ESKOLA**



TXIRRINDULARITZA Astigarragan

Txirrindularitza, dagoen kirol politenetakoa izateaz gain, osasun iturria eta gazteriaren heziketarako eskola garrantzitsuenetako bat da. Lana, esfortzua, sakrifizioa eta lankidetasuna bezalako hitzen esanahia ikasten dute kirol hau egiten dutenek.

Horregatik, pertsonen formakuntzarako tresnarik onenetakoa dugu, zeren hor dago kakoa, umeen ametsak erabiliz, elkarbizitza hobetzeko beharrezkoak diren balore positiboak txertatzea beraien nortasunean. Gero profesional bat ateratzen bada, hobe, baino hori ez da helmuga.

Orain dela urte asko, Motelak Txirrindulari elkar-
tea gure zonaldeko erreferentea izan zen txirrindularitza munduan, eta sortu zutenek pentsamendu berdina izan zuten. Kirol arloan gauzak oso ondo eginaz, maila guztietan ekipoak izan zituzten, eta afizionatu mailan, Espainiako txirrindulari onenek parte hartzen zuten lasterketa bat antolatzen zuten, Santiagomendiko Krono Igoera.

Zenbat eta lorpen handiago izan, orduan eta lan gehiago egin behar da goian mantentzeko, eta hori izan zen arazoa. Arrakastak desagertzera eraman zuten, ez zutelako laguntza edo gazteen artean erreleboa lortu beraien lanarekin jarraitzeko.

Motelak bukatu ondoren, iluntasuna iritsi zen herriko txirrindularitzara. Gazte batzuek lehiatzen jarraitu zuten eta maila oso onean, baino kanpoko taldeetan, eta horrek herri mailan ikusezin bihurtu zuen kirol hau. Ez zegoen berririk, ez zen kirol honetaz hitz egiten, eta horregatik, herriko gazte gehienek ez zuten ikusten txirrindularitza kirola egiteko aukera bat bezala.

Txirrindularitzaren hazia, ezkutuan egon arren, herrian txertatuta utzi zuen aurreko lan guztiak eta, zorionez, ez zen betirako desagertu. Orain dela hamar urte gauzak aldatzen hasi ziren.

Jaietako programan, umeentzako lasterketa herrikoi bat prestatu zen eta arrakasta handia izan zuen. Urtez urte, programan finkatu da eta gaur

egun hainbat ume ekitaldi horren zain egoten dira urte osoan. Aurten, gainera, garrantzi handiagoa emateko, Kale Nagusira pasako da.

Aldi berean, Donosti Berri taldetik, gazte gehiago txirrindularitzara hurbiltzeko asmoarekin, informazioa pasatzen hasi ziren, herriko prentsan zabaltzeko. Bertan, herriko gazteek lortzen zituzten emaitza onak aipatzen ziren, eta poliki poliki, berriro txirrindulari giroa sortzen joan zen herrian. Herriko gazteak kirola egiteko aukera berri bat ikusten hasi ziren.

2013. urtean, Astigarragako Txirrindulariak taldea sortu zen eta urtebete beranduago, umeentzako lasterketa ofizial bat antolatu zuten, Txirrindagan saria. Urte asko ziren horrelakorik ez zela antolatzen herrian, eta oso arrakasta handiko lasterketa bihurtzen ari da. Aurten hirugarren urtez jarraian antolatu da.

Aurten, txirrindularitzak merezi duen lekuan jartzeko, azken bultzada eman dute. Ikastolako kirol arduradunarekin adostuta, talde bat sortu da kirol eskolaren barruan. Arrakasta handia izan du eta 13 alebin hasi dira txirrindularitza egiten ikastolaren izenean. Trebetasuna eta txirrindaren kontrola hobetzeko, ginkanak egin ondoren, bere buruarekin nahiko konfiantza hartu dutenek inguruko herrietan antolatzen diren lasterketetan parte hartu dute, oso emaitza onarekin. Pixkanaka pixkanaka, guztiak lasterketetan parte hartzen joatea, eta datorren urtean ume gehiago izatea dute helburua.

Txirrindulariak urteen arabera sailkatzen baditugu, garbi ikusten da gauzak ondo egiten ari direla. Goi mailan lehiatzen txirrindulari bat bakarra dugu, erdialdean, junior eta kadeteetan, maila bakoitzeko hiru txirrindulari, eta alebin mailan berriz, dagoeneko 16 dira, 13 ikastolaren taldean hasi berriak direnak, eta beste hiru, aurretik kanpoko taldeetan zenbiltzanak. Astigarragako Txirrindularitzak etorkizun ona duela ez dago zalantzarik, orain denon inplikazioa eta laguntza behar du aurrera egin ahal izateko.

Las cosas se están haciendo muy bien y el ciclismo se va recuperando en Astigarraga, tras años de invisibilidad. Se ha comenzado por crear una buena base, y este año se han apuntado 13 chavales a practicar como deporte escolar, lo que siendo el primer año que se les ofrece la oportunidad de hacerlo, es todo un éxito.

Entre los planes de Astigarragako Txirrindulariak, para este año, estaba la organización de una carrera para cicloturistas, como prueba piloto para intentar lograr en un futuro la recuperación de la famosa crono escalada a Santiago Mendi, prueba por la que pasaban los mejores corredores de la categoría a nivel nacional de categoría sub 23 y élites.

Con esa prueba, se daría un impulso definitivo a este deporte en la localidad, para devolverlo al lugar que se merece, pero para ello es necesario mucho trabajo y la colaboración de todos los aficionados locales, cosa que este año no ha podido ser.

Esperemos que se pueda conseguir a corto o medio plazo.

TXIRRINDULARI TALDEA



Argazkiak: Urumeako KRONIKA

ADINEKO HERRI TARREKIN KONTU KONTARI

Astigarragan jaiotako edo gazte-gaztetan ingurutik hona etorritako lau gizonezkorekin egon gara kontu-kontari. Bautista Uranga, Antonio Zubiarrain, Joxe Ollokiegi eta Martin Salaberria. Laurogei urteren bueltan dabilta, kasuren batean pasatxo. Umore onean eta oso atsegin, bertsotan hasi dugu elkarrizketa ...



**Gazte denboran ibiltzen ginan
saltoka edo baltzian
bainan orduko arintasun haik
ez dakit nora joan ziran
Pertsona zenbat makurtutzen dan
urtiarekin zahartzian
orain makila hartu eskuan
ta gabiltz baldar antzian**

•Herria asko aldatu dela ez dago dudarik, zuek nola gogoratzen duzue lehengo Astigarraga?

Orain herrian inor ezagutzen al duzu bada? Hamarretik bi bakarrik ezagunak, jende berri asko baitago. Gauri batean Astigarragan behiak ugari. Etxe guztietan zeuden eta askara joaten ziren edatera, gero egarria asetzen zutenean, bakoitza bere etxera joaten zen bakar-bakarrik, inoren laguntzarik gabe. Larrera berriz, Santio mendira, ez bertatik bertara. Ingurua dena baratza zen, erribera aldean ez zegoen besterik.

Guri txikitan ondo erakutsi ziguten lanean. Mutil koxkorretan behiak jaizten eta gero belarretan eta edozein lanetan. Gaztetan berriz festetatik berandu bueltatuz gero, ez ginen lotara joaten orain joaten diren bezala, gu zuzenean ukuilura lanera. San Joanetan Hernanitik oinez etortzen ginen eta goizaldea iritsi bazuetan. Ohean geratzea pentsatu ere ez! Perretxiko bila mendira bestela.

Orduan apaizak eta alkateak agintzen zuten herrian. Elizan eserleku berezia zeukaten markesak eta alkateak. Sakristian dotrina ikastera, neskak alde batean eta mutilak bestean. Apaiza nazionalista eta etxeakoak karlista amorratuak, berak galderak egin eta erantzunik jasotzen ez bazuen, kaskarreko ederrak eman ere bai!

Udaletxean sekretarioa eta bi guardia zeuden kobratzen zutenak, beste guztiak bere lanak zeuzkaten, baita alkateak ere. Alkatearen baimen baten beharra gertatu eta bera segan ari zen lekuraino joan eta ukalondoarekin sega garbitu eta gero bertan papera sinatu, sega gainean. Gezurra dirudi Donostiatik hain gertu egonda horren atzeratuak egotea, baina beste herriak ere halaxe ziren. Hemen tranbia besterik ez zegoen ...

•Pertsona zaharrak hobeto bizi al zarete orain, gustura al zaudete herrian, esango zenukete zoriontsu zaretela?

Ondo! Orain ondo bizi gara. Lehengokoak ez zeukaten ezer, bizi guztian lana, lana besterik ez. Abantaila handiak daude orain eta horregatik gaude bizirik ere, gaixoaldiak pasa arren, aurrerapenei esker, urte gehiago bizi gara ondo.

Lehen ere baziren dirudunak, baina gehienak gauza gutxirekin bizi ginen. Mutikoak mukiak dariola eta arropa puskatuarekin ibiltzen ginen, ez orain bezala ... orain, diru gutxi daukana ere ez da horrela ibiltzen.



Ezkerretik eskubira: Bautista Uranga, Antonio Zubiarrain, Joxe Ollokiegi eta Martin Salaberria

Erregetan pozik kanika batzuk izanez gero!

Orduko zaharrak berriz lan eta lan, ez zegoen erretirorik. Baratza egiteko terrenoak erabiltzeagatik markesari hamarrekoa ematera joaten ziren, kapoi mordoa izaten zuten garai batean, baserritarrak emandakoak.

•Gero eta gehiago herri lagunkoiak bultzatu nahi dira. Ongi nahi dugu zahartu eta horrek eskatzen du denon erantzukizuna. Ze eginbehar ikusten dituzue zuek?

Guk beharko genukeena hogeitau urte gutxiago! Ondo, tratu ona jasotzen dugu guk, ezin esan beste gauzarik. Izango dira baztertuak eta bakarrik daudenak ere baina gu ondo tratatzen gaituzte, ez dugu kexarik. Hemen diruak agintzen du, zerbait badaukazu kontuan izango zaituzte.

Beste aldea jarrita dago orain kontua, askotan zaharrak gazteei laguntzen, lanik gabe daudelako eta. Hala ere, gu ez gaude gauza batzuk egiteko. Ikusten dira adineko batzuk ume kontu eta beldurra ematen du, gu poliki ibiltzeko gaude eta. Hor arriskua dago, ez baitaukagu lehengo arintasunik.

Behar gutxi dauzkagu gainontzekoan, arratsaldetan elkartu, paseo bat emanez, tertuli eder bat, baso erdi pare bat ... ze gehiago eskatu?

Roxa Zabalegi

UBEGI BASERRIKO XVI. MENDEKO DOLARE ARDATZA



Astigarragak sagardogintzarekin duen eta izan duen lotura begi-bistakoa izan arren, sagardo dolare zaharrekin loturiko pieza garrantzitsuena, ez zen bertan aurkitu, gertuko Alzako Sarroetan baizik. Ubegi baserriaren zurezko barne-egitura aztertzen ari zirela egin zuten topo Gipuzkoan gaurdaino osorik iraun duen horrelako ale bakarrarekin: dolare ardatza.

Ubegi baserria


Kanpotik ikusita, begiratu batean, Ubegi baserria XVIII. mendeko eraikina dela dirudi: lau isuriko estalkia, oso ongi landutako harlanduzko ateburu eta eskantzu ederrak, Igeldo mendiko harrobietako harearrizko horma sendoak, saietera luzeak... Baina ez da horrela, XVI. mendekoa baita sortzez. Urteen joanean aldaketa eta hobekuntza obra-lan ugari izan baditu ere, oraindik gordetzen ditu jatorrizko zenbait zura adierazgarri: zutabeak, habeak, txarrantxak, XVI. mendeko dolare zaharraren zoruko oholak, azpi-sumilak eta baita, handik atera arte, dolare zaharraren ardatza ere, beste erabilpen batekin bazen ere. Lehen Karlistaldian (1833-1839), Altza, Astigarraga eta Urumea arroko ia baserri guztiak erre eta suntsitu bazituzten ere, Ubegi, Ubegibea zehazki, mirariz, salbatu zen; Ubegigoia, aldiz, deseginda geratu zen eta egun ez da haren arrastorik geratzen.

Ubegi landetxearen jatorria XIII. mendetik Donostian probestu kargua zuen Engomez familia boteretsuarekin dago lotua. Donostiako nekazari etxeak, oro har, jaun burges eta nobleziarenak ziren.

Hala, Ubegi, Donostiako gainerakoak bezalaxe beti maizter etxea izanik, Mendizabal familiaren jabetza zen, Urumea inguru honetan hamar bat baserri baitzituzten. Joaquin Mendizabal Gortazar (1886-1954), Peñafloidako XV. kondea, Ubegiko jabea izan zen XX. mendearen lehen erdian, eta Aranzadi Zientzia Elkarteko sortzaileetakoa eta lehendakaria ere bai. 1992. urtean ordura arteko bi maizter-familiek, Aierbe eta Elizegitarrek, erosi zuten baserria.



400 urtetik gorako ardatz hori habe-palanka dolare edo prentsa baten piezarik garrantzitsuena zen, palanka-besoarekin batera, jakina. Funtzionamendu mekanismoa erromatarren dolareetan oinarritzen bazen ere, XVI. mendeko eta XVII. mendeko lehen erdialdeko isurialde atlantiarreko baserri eredu berrietan barneratu zen, barne-egituraren txertatuta. Hala, baserriaren bolumen ia osoa hartzen zuen makina erraldoia zen dolarea.



Lurretik goiko estalkirainoko bernia edo habe-pareen erdian palanka-beso handi baten jokoan oinarritzen zen prentsaketa sistema. Mandio eta ganbara guztia hartzen zuen ia 12 metro luze izaten zen habe erraldoi hark. Habe hartatik tira ardatz luze baten bidez egiten zen, etxeko ia bi solairuen altuera hartzen zuen 6-7 metro luzeko ardatzetik zintzilikatzen zen 2 tonako harri edo kontrapisuak eragiten zuen zanpatzea, jotako sagar-orearengan etengabeko presioa eraginez.

Dolare horiek milaka baserritan hedaturik bazeuden ere, gaur egun bat bera ere ez da osorik geratzen, Ezkion berreraiki duten Igartubeitikoa izan ezik. Dena den, dolare erraldoi horien arrastoak baserri zahar ugaritan geratzen dira oraindik, dela egituraren parte moduan etxeari eusten, dela solairuetako atal nagusi moduan.

1987. urtean, baserriak eta bertako ondarea modu zehatzean aztertzen hasi ginenean, Altza aldeko baserrien txandan Ubegi aztertzeako ordua iritsitakoan, solairuaren egitura erdi ezkutatuta, soliba gisa berrerabilia, dolare zaharraren zurezko ardatz edo torlojua aurkitu genuen, bi zatitan banatua; baita bere azkoin hariduna ere, zurezkoa hori ere, beste erabilpen batekin.

Dolare zaharraren aztarnen bat izango zela berehala ohartu baginen ere, urteak pasa eta hamaika irteera egin behar izan genituen torloju eta azkoinaren funtzionamendu edo egiteko zehatzaz jabetzeko. Besteak beste, horretan asko lagundu zuen Ibaetako Iribar baserriko semea zen Joxerramon Bitoriak (1912-1998). Baserritar sagardogile hark, beste gauza askoren artean, oroimenean gordetzen zuen honakoa: *haurrak zirela, aitonak kontaktzen ziren Iribarreko dolare zahar hartan sagarra jotzean etxe osoak dardara egiten zuela, krak-krak! egiten zuela egiturak. Beldurra pasatzen omen zuten.*

Aztertzen jarraitu genuen, baina halako beste alerik ez zen agertu. Gipuzkoan osorik irauten duten ale bakarrak ziren beraz, dolare-torlojua eta bere azkoina; benetako altxorra gipuzkoarrentzat eta euskal kulturarentzat, orokorrean. Ardatza Gipuzkoako Aldundiko Kultura Sailak hartu zuen, eta gaur egun Irunen duen Gordailu biltegian gordetzen da, kontserbazio baldintza egokietan. Trukean erreteila egiteko milioi bat eta berrehun mila pezetako diru-laguntza eman zitzaizen orduko baserriaren jabeei, 1994. urtean.

Goierriko Igartubeiti baserriaren berregitean paper garrantzitsua izan zuen Ubegiko ardatzak, berau hartu baitzen eredu gisa.

JOSU Tellabide



Isabel, Santiemendiko Ermañako baserriaren inguruan.

OHARRA: Ondoren agertzen diren "Isabelen gauza txikiak" berari grabatutako elkarrizketaren transkripzioa da

MILAGROSA AMA BIRJINA



Orain dela berrogeita hamar urte inguru, herrian erlijiositate askorekin eta tradizioekin bizi ginen. Hilean behin jasotzen genuen egurrezko kaxa txiki bat, aurrean kristal bat zeukana eta barruan Ama Birjina Milagrosa, bere lore txikiekin, bere gauza politekin. Kaxaren azpian zirrikitu txiki bat zeukan, eta hor bakoitzak bere dirua botatzen zuen, Milagrosarentzat. Hori izaten zen gauza oso interesgarria egunero-egunero Ama Birjinaren bisita hau izaten zen herri guztiko etxeetan, eta kate hau segitzen zen beti, etenik gabe.

... egunero-egunero Ama
Birjinaren bisita hau egiten
zen herri guztiko etxeetan.

KANPAI HANDIAREN SOINUA

Gero beste gauza asko izaten ziren. Adibidez, zine batzuk egiten ziren elizan, ekaitz handiak izaten zirenean, udaran gehiena, tximista eta euri handiak zirenean. Horrelakoetan, baserriarren lanak galtzen ziren eta geratzen ziren oso hondatuta. Kanpai handiaren soinuarekin denak alertatzen ziren bazetorrela euria edo kazkabarra. Gainera, elizako sarreran Don Florencio apaiza egoten zen, bere ur bedeinkatuarekin, Santa Barbarari errezatzen pasa zedila uraren eta kazkabarren kaltea.

Bestetan kontrakoa, askotan izaten baitzen euri falta, eta horrelakoetan ere hondatzen ziren egindako lan guztiak, baratzetan, fruituetan... Horrelakoetan, apaizaren errezoekin batera, San Isidro ateratzen zuten prozesioan eta eskea egiten zitzaion gure santu handiari, baserriarrentzako San Isidro zelako beren santurik handiena. Astigarragako lurretara euria ekartzeko eskatzen zitzaion.



KALE NAGUSITIK KARROA SIMAUREZ

Ni bizi nintzen kale nagusian eta bertan aurre-
ra eta atzera ibiltzen ziren gurdiekin. Hori zen
kale nagusia, besterik ez zen, eta denak hortik
pasatzen ziren. Nire etxe ondoan zegoen baserri
bat, azpian abereentzako ukuilu handi batekin,
eta gehienetan hango nagusiak pentsatzen zuen
eguerdia zela ordurik onena simaurra ateratzeko.
Betetzen zuenean bere gurdia simaurrez, atera-
tzen zen kalera. Ez nuke gehiago sentitu nahi han-
go kiratsa, eskuinera eta ezkerretara zabaltzen
zuen usaina kalean.

ABERE HANDI BAT GURE ETXETIK

Gure etxetik gertu, abere handi bat zaukaten ukui-
luan eta eguerdian irekitzen zioten ate handi bat
eta animalia ateratzen zen lasai-lasai bidera ba-
kar-bakarrik. Bazekin hark nora joan behar zuen



HIJAS DE MARIA. Ejercicios espirituales 1946

ura edatera. Bastante pauso ziren, ia-ia bide erdia
gure etxetik, han erdi erditik pasatzen zen eta
gero bere egarria betetzen zuenean, bakar ba-
karrik bueltan etortzen zen inoren laguntasunik
gabe bere beharrak ondo zainduta.

ARDI KOADRILAK

Zenbat bider pasatzen ziren artaldeak Oiartzun
aldetik Hernani aldera! Orduan izaten zen festa!
Batzuek egiten zuten ihes eta bidean joan beha-
rrean, igotzen ziren plaza aldera. Horrelakoetan
txakurrak eta artzaina ibiltzen ziren haiek denak
bere bidera ekarri eta martxan jarri nahian. Garbi-
tu beharra gelditzen zitzaigun ondoren guri, pos-
tre ederra uzten baitzuten. Guk hori jaso beharra,
ordean ezer eman gabe. Denak konforme, zer egin
hala egin, denak konforme.

BELAR SIKUEKIN

Beste momentu batzuetan, gaua aldean, pasatzen
ziren gurdia goraino belar sikuekin, Santiomen-
ditik edo Txoritokieta aldetik. Belarra jasotzen
ibiltzen ziren nekazariak, eta puntaraino betetzen
zuten belarrez gurdia bere etxeko abereentzako
janaria izateko. Ilunabar aldera jaisten zirenean,
bere argiak jartzen zituzten karreta aurrean, ikus-
teko nondik zihoazen eta jendeak ere beraiek
ikusteko. Automobilen arriskurik ez zegoenez,
lasaitasunean egiten zuten bere pasadizoan.

BATISTA KARTEROA

Nire memorian, umetatik gorde dudan beste oroi-
men bat Batista jaunarena da, karteroa. Esker handia
eman beharko litzaioke gure herrian. Hernanin jaso-
tzen zituen karta guztiak, bere poltsa handian, baina
esan daiteke handiago ezin zela izan. Karga handi-
ko poltsa zuen, eta eraman behar zuena oso eskaseko
gizona. Jartzen zuen zintzi-
lik Hernanin poltsa handia
eta hortik ateratzen zituen
izaten ziran kartak. Base-
rritakoak baziren, uzten
zituen han behean kalean,
dendaren batean edo bes-
tean, eta horrela molda-
tzen ginen orduan gure
korrespondentziarekin.

DIKTADURAREKIN EDO DENTADURAREKIN

Frankismoan oso-oso
momentu txarrak pasa
genituen denak. Ni gaztea
nintzan eta, egia esan, ez
naiz gehiegi konprometi-
tu horretan, baino txiste
bat bezala kontatuko dut.

Astigarragako etxekoandre bat oso xelebrea zen,
Pantxika zuen izena. Arrobitxulo aldean bizi zen
eta egun batean sartu zen tranbian Donostiara
bere berdura eramateko, beste lagun askorekin.
Tranbia horietan beti presentatzen zen polizia,
gizon berdexka, koipe handi gabekoa eta bibote
txiki fin batekin. Jakina zen zein zen eta polizia
sekreta esaten zitzaion. Gure Pantxika eseri zen
tranbiako eserlekuan eta lagunak galdetu zioten:
zer moduz zaude? Ni gaizki, oso gaizki diktadura-
rekin, erantzun berak, eta momentuan etorri zi-
tzaion gizon ergel hori eta galdetu zion: Zer esan
duzu? Ni oso gaizki nagoela diktadorekin, berriz
ere. Ondoan zeuzkan emakumeak bere alde atera
eta esan zioten poliziarri: ez du ondo esaten, mi-
nez dago, dentadura ari da konpontzen. Orduan ez
dakit parra edo negarra egin zuen poliziak baino
ez zen gutxiagorako! Gure Pantxikak hartu zuen
sustoa!

HERRI BIZITZAZ 2017

KORRIKA 20



20. KORRIKA eguerdi aldera iritsi zen herrira, jende askok parte hartuz eta kaleetan barrena euskararen alde gogoz eta indarrez korrika eginez. Gure hizkuntzaren iraupenak duen garrantzia antzematen da, hainbeste lagun mugiarazten baitu.

EMAKUMEON PLAZA



EMAKUMEON PLAZA inauguratu zen emakumearen nazioarteko egunean, Zorione Etxezarraga alkate izendatu berria bertan zela. Egun horretako desioen zuhaitza jarri zuten Harituz elkarteko emakumeek. Bertan bakoitzak bere desioa zintzilikatzeko aukera izan zuen eta emakume ugarik egin zuen.

EUSKAL HERRIKO TXISTULARIEN TOPAKETA



TXISTULARIEN TOPAKETA ASTIGARRAGAN Euskal Herriko Txistularien Elkarteko Gipuzkoako ordezkariak antolatuta, txistularien topaketa egin zen herrian San Isidro egunean, maiatzak 15, Jose Inazio Ansorenaren zuzendaritzapean. 38 txistularik (5 herritar eta musika eskolako 7) hartu zuten parte. Herriari itzulia emanez, ordu eta erdiko saioa egin zuten, Txomin San Sebastian txistulariaren monumentuari doinu bat eskainiaz tartean. Ondoren afaltzera joan ziren GURE IZARRA elkartera eta han japoniar batek emanaldi txiki bat egin zuen beren antzinako flauta batekin.

MAPA MOREA



ASTIGARRAGAKO MAPA MOREA Genero ikuspegitik aztertu da herria, hirigintzan tresna eraginkor bat izateko asmotan eta emakumeen segurtasuna kontuan hartuta. Espazioen antolaketan, kaleak, plazak eta parkeak erabiltzerakoan guztion segurtasunak, mugikortasunak eta irisgarritasunak eragin handia dute eguneroko bizitzan.



Argazkiak: XALIMA

Hegaztien eraztuntzea



Astigarragako Udalak, Aranzadi Zientzia Elkarteko Ornitologia Sailarekin batera, hegaztien ezagutzarekin lotura duen ingurumen heziketa proiektu bat burutu du.

Azken urteotan inguratzen gaituen natura ezagutu eta hura kontserbatzeko nahia nabariagoa da gure gizartean. Gure ondare naturala babestu eta zaintzeko interesa eta ardura handitzeaz gain, natura eta aisia uztartzeko bideak gero eta gehiago dira. Eremu honetan, hegaztiak heziketa eramaile bikainak dira.

Heziketa proiektu honen helburu nagusia herritarrak naturaren ezagutza, kontserbazio eta ikerkuntzaren garrantziaz jabetzea da, batez ere, haur eta gazteei bideratuta.

Eraztuntze zientifikoa hegaztien biologia eta jokabideak ikertzeko erabiltzen den markaketa teknika bat da. Hegaztiaren hanka batean metalezko eraztun bat jartzean datza. Eratzunak kode alfanumeriko bat dauka, NAN moduan erabiltzen dena eta hegazti bakoitza modu bakar batean identifikatzeko balio duena.

Eraztuntzetik lortutako informazioak hegaztien kontserbazioa zaintzeko nahitaezkoak diren alderdiak ikertu eta ezagutzeko balio digu. Herritarrak hegazti eta ikerketa mota honetara gerturatuz ikerketa zientifikoen garrantziaz sentsibilizatu daitezzen laguntzen du. Aurtengoan Astigarragako Murgia parkera egin dugu irteera; modu horretan eraztuntze zientifikoko saio bat zuzenean bizitzeko aukera izan dugu eta gure inguruan bizi diren hegaztiak gertutik ikusi eta ezagutu ahal izan dugu.

[Astigarragako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartea](#)



kutxabank



Astigarragako Udala

ASTIGARRAGA

UDALERRIAREN LURRALDEA:

Hiri lurzorua / Suelo urbano: 1.133.738 m²

Lurzoru hiritargarria / Suelo urbanizable: 418.001 m²

Lurzoru hiritarrezina / Suelo no urbanizable: 10.423.261 m²

GUZTIRA: 11,975 km²

HERNANI

ERRETERIA
OIARTZUN

DONOSTIA

